

Thomas Quick

serieko hiltzaile baten eraikuntza sozialaren kasua

 BOOKTEGI

Mikel Haranburu Oiharbide

Nekane Balluerka Lasa

Arantxa Gorostiaga Manterola

EHUko Psikologia Fakultatea



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

MIKEL HARANBURU OIHARBIDE /
NEKANE BALLUERKA LASA /
ARANTXA GOROSTIAGA MANTEROLA

Thomas Quick: serieko hitzaile baten eraikuntza sozialaren kasua

EHUko Psikologia Fakultatea

AURKIBIDEA

Laburpena

1. Sture Bergwall-en haurtzaroa eta gaztaroa
2. Thomas Quick-en aitortenak eta zigorrak
3. Sture Bergwall-ek bere gain hartu zituen beste hilketak batzuk
4. Zerk eraman zuen Sture Bergwall aitorten horiek egitera?
5. Margit Norell, Christianson eta Quick taldea
6. Memoria erreprimituaren teoria
7. Sture Bergwall-ek bere nortasuna berreskuratzen du
8. Hilketak berraztertzen
9. Lekukoen testigantzaren fidagarritasuna
10. Talde-pentsamendua
11. Ondorioak

Liburuaren egileak

Liburuaren gaia

Erreferentzia bibliografikoak

Laburpena

Sture Bergwall Suedian (Korsnäs, Falun) jaio zen 1950 urtean. Nerabezaroan joera homosexualak agertu zituen eta 19 urte zituela abusu sexualen kasu batean inplikaturik egon zen. 41 urte zituela, drogekiko zuen mendekotasunak eramanda, banku batetik dirua osteko helburuz bahiketa bat egin zuen eta, ondorioz, espetxe psikiatriko batera kondenatu zuten. Espetxe psikiatrikoan zegoela, bere izen-deiturak utzi eta Thomas Quick izen-deiturak hartu zituen. Ebatzi gabe zeuden 30 hilketak baino gehiago bere bizkar hartu zituen eta hilketak horietako zortziren egile izatea egotzita kondenatu zuten. Kasu horietako bakar batean ere ez zen agertu Quicken egiletasunaren ebidentzia enpirikorik edo testigantzarik. Talde terapeutikoarekin, adituekin, poliziekin, abokatuekin, fiskalarekin eta epailariekin lankidetzan estuan jardun zen Thomas Quick eta trukean sendagaien dosi oparoak jaso zituen. Sendagai horiek droga moduan funtzionatu zuten eta horiei esker oroimenera ekarri zituen ordura arte erreprimituak zituen esperientzia traumatikoak. Ospitaleko sendagileak Thomas Quick-en droga-iturria mugatu zuenean, talde terapeutikoarekin lankidetzan jarduteari utzi zion hark eta ukatu egin zuen auzitegietan bizkarreratu zizkioten hilketak egin izana, Råstam kazetariaren laguntzari esker. Lan honetan honako alderdi hauek aztertuko ditugu: Säter-ko ospitale psikiatrikoan sortu zen mikroklima; Sture Bergwall-ek hilketak bere bizkar hartzeko zuen motibazioa (arreta bilatzea); Sture Bergwall kondenatzeko poliziek, terapeutek, abokatuek eta epailariek izan zituzten arrazoiak (talde pentsamendua), auto-egozpenaz at beste frogarik gabe.

1. Sture Bergwall-en haurtzaroa eta gaztaroa

Sture Bergwall Suedian (Korsnäs, Falun) jaio zen 1950ean. Sei anai-arreba ziren familian, arreba biki bat barne. Aita langilea zuen; Pentekoste Elizako kidea; izaera inhibitukoa eta depresibo samarra. Lehen Hezkuntzako ikasketak egiten hastean, tuberkulosiaz gaixotu zen Sture eta ospitalera eraman zuten; ospitaleko bakardadean egon behar izan zuen, guraso eta senideengandik aldendua, eta ikasturte gehiena galdu zuen. Ospitaletik itzultzean, gizendua eta luzatua zegoen eta nahiko iseka jaso zuen lagunengandik. Bakarti xamar pasatu zituen eskolako urteak (Josefsson, 2015).

Sture nerabezaroan konturatu zen homosexuala zela. Garai hartan desbideratze mentaltzat hartzen zen Suedian homosexualitatea eta pertsona homosexualak ezin zuen harremanik eduki beste homosexualekin. Bigarren mailako eskolan hasi zen drogak kontsumitzen: trikloroetilenoa kontsumitzen zuen batez ere. Droga horri esker, eldarnioak izaten zituen eta bere mundutik ihes egiten zuen, baina familiari erabat ezkututzen zizkion droga-zaletasuna eta homosexualitatea. Ikasleen Kontseiluko presidente eta eskolako aldizkariaren editore izatera heldu zen.

Hamasei urte zituela eskolako doktoreak Stureren azterketa psikiatriko bat eskatu zuen eta hainbat arazo diagnostikatu zizkieten: egokitzen arazoak, bulkaden kontrol eskasa, joera erasokorrak, hitz egiteko intentsitate dramatikoak, irudimen suttsua, auto-promoziorako joera, lagunekin eta familiarekin harreman gatazkatsuak eta joera femeninoa (Josefsson, 2015).

1956an Falun-go kanpoaldera joan zen bizitzera Bergwall-tarren familia. Goi mailako ikasketak egin ezin zituenez, banku bateko atezain moduan hasi zen lanean 17 urterekin. Mutikoek erakartzen zuten eta terapiak ez zuen funtzionatzen. Beroaldi batean, erlijio sentimenduak eramanda, barnetegi batean sartu zen, teologia ikasteko asmoz, baina han droga eta alkohol gehiago kontsumitzen zuen eta osasun mentaleko Ulleraker ospitalean eduki zuten, psikosiaren kontrako tratamenduarekin. Barnetegitik bota egin zuten portaera sexual desbideratua zuelako eta ikasketetan maila eskasa ematen zuelako.

Ondoren, Falungo ospitalean gauetan lan egiten hasi zen, erizain laguntzaile moduan. Han lagun homosexual bat egin zuen, baina bere buruaz beste egin zuen hark eta oso une tristek

bizi izan zituen Sturek. Handik laster, anfetaminak kontsumitzen hasi zen, hamaika urteko haur batez abusatzen saiatu zen, bederatzi urteko haur bati abusu sexualak egin zizkion ospitalean eta Södertälje-ko erakunde psikiatriko forentse batean sartu zuten. Garai horretan Brundin doktoreak esan zuen perbertsio sexual larria (paedofilia cum sadismus) zuela Bergwall-ek eta hiltzaile arriskutsua zela. Holmstedt psikiatrak pentsatzen zuen Sturek anormaltasun mental larria zuela eta psikoanalisiak ez zuela aldatuko haren portaera sexuala (Josefsson, 2015).

1970eko maiatzean, eraso sexualak egin zizkien lau mutikoei eta Sundsvall-eko Sidsjön izeneko osasun mentaleko ospitalean sartu zuten. Han urtebete egin ondoren, 1971ko udazkenean, Jokkmokk-eko Sami College ikastetxean ikasten hasi zen. Han alkohola, anfetaminak, trikloroetilenoa eta erlaxatzaileak kontsumitzen zituen. Eldarnioak eta suizidio pentsamenduak agertzen zituen eta Sidsjön ospitalera eraman zuten berriro ere. 1973an Sidjön-etik Säter-eko unitate segurura eraman zuten. Säter-en atxikimendu handia sortzen zuten lasaitzaileak ematen zizkioten: benzodiazepinak.

Säter-en zegoela, sendagileei esan zien drogak utziko zituela eta unibertsitaterako helduentzako sarbide ikastaroa egin nahi zuela Uppsalan. 1973ko abuztuan anaiarekin batera ikasleen egoitza batean egon zen eta talde politiko erradikal bateko kide izan zen. Postari moduan lan eginez diru pixka bat lortzen zuen, baina ikasken ez zen saiatu. 1974ko martxoan bera baino hamar urte zaharragoa zen ikasle lagun bat eraso zuen, drogen eraginaren pean eta Säter-en sartu zuten berriro ere. 1974ko ekainean baimena eman zioten egunean bi orduz ospitalea uzteko, drogarik ez hartzeko eta istilurik ez sortzeko baldintzaz. 1975eko urtarrilean pare bat hilabetez monasterio batean egoteko baimena eman zioten, baina astebeterako Säter-era itzuli zen. 1975eko azaroaren 3an bere buruaz beste egiten saiatu zen eta gutxigatik atera zuten onik. 1977 urtean askatu zuten Säter-etik.

1977an hil zitzaion aita eta Sture ama zaintzen geratu zen. 1980ko hamarkadaren hasieran benzodiazepina sendagaiaren dosi txikiak hartzen zituen eta bizitza kontrolatua zeraman. Ama 1983an hil zitzaion. 1982an prentsa saltoki bat jarri zuten hiru anaien artean. 1986an itxi zuten denda eta Kristina izeneko lagun batekin kiosko bat ireki zuen. Kristinaren seme Patrik-en lagun egin zen Sture eta harekin lotura nahiko estua izan zuen, hura neska batekin irteten zen arren. 1988an droga gehiago eta alkohola kontsumitzen hasi zen Sture eta lanera toxikaturik joaten

zen. Kioskoa utzi eta ordukako lana lortu zuen bingo deitzaile moduan.

Patrik lagun zuela, banku batean atraku bat egiten saiatu zen 1990ean; bankuko zuzendariaren familia bahitu zuten. Sture moxorroturik zihoan eta finlandierako azentua erabiliz hitz egin zuen, ezagutu ez zezaten, bankuko bezeroa baitzen eta banku aurreko estankotan egiten baitzuen lana; baina une batez ahantzi egin zitzaion azentuarena eta ezagutu egin zuen bankuko zuzendariak. Poliziak atxilotu zituen Sture eta Patrik. Patriki espetxe zigorra eman zioten eta Sture ospitale psikiatriko batera bideratu zuten. Psikiatrak esan zuen lapurreta ez zutela egin onura ekonomikoa lortzeko, baizik elkarrekin zuten harreman sexual motak eramanda. 1991ko apirilaren 29an Säter-ko ospitale psikiatrikoan sartu zuten, 41 urterekin. Ospitale horretara eramateko motiboak: lapurreta saioa, haurrei eragindako abusu sexualak, drogen kontsumoa eta nortasunaren nahastea. Säter-en berehala hasi ziren Sture-ri droga psikotropiko ugari ematen eta horrela jarraitu zuten hurrengo hamar urteetan.

Säter-en zegoela, 1992ko udan, hasi zen Sture Bergwall Thomas Quick izena erabiltzen: Thomas zen haren lehen biktimaren izena eta Quick haren amaren ezkongabe-garaiko deitura zen (Råstam, 2013; Josefsson, 2015).

2. Thomas Quick-en aitortpenak eta zigorrak

Säter-ko Psikiatrikoko terapia saioetan Thomas Quick-ek bere bizkar hartu zuen argitu gabeko 32 hilketaren ardura eta zortzi hilketengatik kondenatu zuten. Hilketak horiek 1964tik 1993ra bitartean gertatuak ziren.

1992ko ekaineko egun eguzkitsu batean, Ljustern lakuaren ondoan, hasi zen Bergwall erizainari aitortpen horiek egiten. Ordurako urtebete pasatxo zeraman Säter-en. Bergwall-ek bazituen inguruan hiltzaile gogorrak eta haien artean nabarmentzeko eta arreta erakartzeko zerbait larria egin zuela esan beharra zeukan. Ospitale psikiatrikoko profesionalen eta poliziaren aurrean aitortu zuen hainbat biktima aitzoz eraso, bahitu, estrangulatu eta bortxatu zituela. Thomasek bere gain hartu zituen hilketak hainbat lurraldetan eginak ziren: Suedia, Finlandia, Norvegia eta Danimarka. Lehen hilketak 1964 urtekoa zen, Thomasek hamalau urte zitueneko. Sei epaiketa egin zizkioten eta hiru emakume eta bost gizon erailtzegatik zigortu zuten. Hilketak horien lehen epaiketa 1994an izan zen eta azkena, 2001ean.

Bergwall honako pertsona hauek hiltzeagatik kondenatu zuten:

- Charles Zelmanovits (Pitea, 1976).
- Johan Asplund (Sundsvall, 1980).
- Marinus eta Janni Stegehuis (Appojaure, 1984).
- Yenon Levi (Rörshyttan, 1988).
- Therese Johannesen (Drammen, Norway, 1988).
- Trine Jensen (Oslo, 1981) eta Gry Storvik (Oslo, 1985).

2.1. Charles Zelmanovits (Pitea, 1976)

Sturek bere gain hartu zuen Charles Zelmanovits izeneko hamabost urteko mutikoaren hilketak. 1976ko azaroaren 12an Pitean desagertu zen Charles, eskolako dantzaldi baten ostean. Haren hondakinak 1993an aurkitu zituzten.

Sture-k esan zuen berak eta bere lagun batek erail zutela Charles, baina hilketari buruzko datu oker asko eman zituen: hura Piteako hego-mendebaldean aurkitu zuela esan zuen, ezaguna zenean Munksund-en, Piteako ipar ekialdean, desagertu zela; Charles desagertu zen tokia eta haren hondakinak zeuden tokia ez zetozen inolaz ere bat Sturek deskribatutako ibilbidearekin. Charlesek topo egin omen zuten orduan hura bere lagunekin zegoen. Quick-en iritziz, elurra zegoen Pitean, baina egun horretan elurrik ez zuen egin han. Quick-ek zion gorpua lurpean sartu zutela, baina besterik zioten tekniko forentseek. Quick-ek zion Charlesek harreman sexuala izan zuela berekin, baina lehentxeago Charlesek bere lagun Mariarekin sexu-harremanak izan zituen. Kontraesan horiek guztiak nabarmenak izan arren, Penttinen poliziaren arabera, Quick-ek egindako deklarazioak ados zetozen hilketaren eszenari buruz zituzten datuekin.

Piteako distrituko auzitegian talde kohesionatu bat eratzen joan zen Quick-en kasuaren inguruan: fiskala, abokatu defendatzailea, poliziak, terapeutak, ikerlariak, sendagileak, adituak eta kazetariak. 1993ko martxoan artikulu bat idatzi zuen Christianson-ek DN Debatt kazetan. Artikulu horretan serieko hiltzaileen nortasunari buruzko ikerketak aldarrikatzen zituen. 1994an Sture Bergwall-en kasua ikertzen hasi zen eta ustezko hiltzaileari galderak egiteko elkarrizketa kognitiboa erabiltzea proposatu zuen. Charles Zelmanovits-en hilketaren ikerketa egiteko Piteara joan zen taldeko kide zen Christianson psikologoa, Kwast fiskalarekin, Stahle terapeutarekin, Penttinen poliziarekin, erizainekin eta beste kide batzuekin batera. Sturek berreraikuntza horretan egindakoa ez zettorren bat hilketaren bertsio polizialarekin, baina hala ere, berreraikuntza arrakastatsutzat jo zuten Penttinen, Christianson eta Stahlek, eta jabetxe eder batean ospatu zuten (Råstam, 2013).

Epaiaketa hasi eta berehala argitaratu zuen Aftonbladet kazetak Sture serieko hiltzaile pedofiloa, nekrofiloa, kanibala eta sadikoa zela. Taldeko kide guztiak bat zetozen beren iritzietan. Kwastek 1994ko urriaren 18an Piteako Instantzia Nagusiko epaimahaiari idatzi zion esanez 1976ko azaroaren 13an Quick-ek Charles Zelmanovits estrangulatu eta hil zuela. Kwast-en esanetan, Sture kondenatzeko froga zehatzak bildu zituen poliziak: aitorpenak, gorpu-zatiak eta beste xehetasun batzuk. 1994an kondenatu zuten Sture hilketa horrengatik, haren aitorpenean oinarrituta eta ebidentzia zientifikorik gabe. Sententzia aho-batez eman zen eta Kwast fiskalarentzat garaipen erraza izan zen (Råstam, 2013).

Quick hilketa horregatik kondenatu zutenean, astean bi egunetan egiten zituen terapia saioak Birgitta Stahle eta Lena Arvidssonekin. Terapia saioak gainbegiratzeko zituen Margit zen. Zelmanovits-en kasuan poliziak egiaztatu egin zuen Thomas Quick-ek esana eta horrek indartu egin zuen Margiten teoria. Kwast fiskalak Margiten jarrera indartzen zuen eta Margitek oinarria ematen zion Penttinenen eta Kwasten lanari.

Lars Lidberg psikiatria forentseko irakaslea zen, Kwast fiskalak fitxatua. Sture Bergwall-ek bere burua hilketen errudun jo zutenean, berehala onartu zuen Lindberg-ek haren bertsioa; esaten zuen Bergwall-ek aita eta amarengandik eraso sexualak jaso zituela txikia zenean eta orduan lotu zituela erasokortasuna eta sexualitatea. Expressen egunkariko kazetaria zen Pelle Tagesson-ek ere pentsatzen zuen Bergwall errudun zela.

2.2. Johan Asplund (Sundsvall, 1980)

1980ko azaroaren 7an goizeko zortzietan irten zen Johan etxetik, eskolara joateko; hamaika urte zituen. Eskolatik hirurehun metrora bizi zen, baina ez zen etxera berriro itzuli. Poliziak ez zuen haren arrastorik aurkitu. Johan-en gurasoak hedabideetan oso ezagun bihurtu ziren. Susmoak zituzten haurraren amaren lehen bikoteak bahitu izango ote zuen Johan; horregatik kondenatu ere egin zuten, baina apelatu ostean, aske geratu zen.

Poliziak lehenengoz 1993ko martxoaren 1ean elkarrizketatu zuen Thomas Quick, Asplund-en hilketa zela eta. 1993ko martxoaren zortzian Bergwall-ek, 42 urterekin, bere gain hartu zuen haren hilketa. Eskolatik irtetean kotxean hartu, basora eramanez, bortxatu, estrangulatu eta lurazpian sartu omen zuen. Haurraren hatzak jan zituela ere esan zuen. Miaketa ugari egin zituzten, baina gorpuzkinik ez zuten aurkitu.

Kasua argitu gabe zegoela, kazetari batek haurraren amari esan zion Säter-en giltzaperatua zegoen gizon batek (Sture Bergwall-ek) haurra erail izana aitortu zuela. Haurra bere autora erakarri, basora eramanez, sexualki eraso eta, izu-ikara erasoaldi batean, estrangulatu egin zuela. Erail ostean, gorpua ehortzi egin zuela, inork aurki ez zezan.

Sundsvall-en jaio zen Johan Asplund eta haren kasua ikertzea Kwast fiskalari eta Sundsvall-eko Penttinen poliziarri zegokien. Christer Van der Kwast prokuradoreak esan zuen polizia teknikoa gorpuaren bila ibili zela zakur prestatuekin, Sturek seinalaturiko lekuetan, baina haren arrastorik ez zuela aurkitu. 1993ko udaberrian ibili ziren Asplund-en gorpuzkinen bila, Sturek esandako lekuetan, baina ez zuten ezer aurkitu eta ebidentzia forentserik ez zuten.

Stureren bertsioa kolokan zegoen. Tord Ljungström-ek, Sturek (bere esanetan) hilketarako izan zuen konplizeak, inoiz ez zion bere autorik utzi Stureri eta inoiz ez zuen eduki Sturek esaten zuen koloreko autorik. Gainera, Sturek 1987an atera zuen gida-baimena eta autoa gidatzeko batere trebetasunik ez zuen; hilketa, berriz, 1980an gertatu zen. Bergwall-ek ez zekien mutilak zer jantzi zeraman. Sturek hasieran esaten zuen estrangulatuta hil zuela, baina gero aitzoz erail zuela esan zuen. Elkarrizketa bakoitzean bertsioak aldatzen zituen. Hala ere, Kwast fiskalak eta Penttinen poliziak Säter-eko psikiatreek elkarrizketa terapeutikoetan lortutako bertsioa defendatzen jarraitu zuten. Gubb Jan Stigson hiketen erreporterra zen eta martxoaren 10ean Dala-Demokraten kazetan argitaratu zuen Falun-eko bizilagun batek bere gain hartu zuela Asplund-en hilketa (Josefsson, 2015; Råstam, 2013).

Johan-en aitak inoiz ez zuen sinetsi bere semearen hiltzailea Bergwall zenik. Bergwallek aitortu zuen Johan-ek marka bat zeukala, sabelean ebaki bat. Johan-en aitak esan zuen bere semeak zuen marka berezia ipurmasaileko orin bat zela. Terapeutekin eta poliziarekin egon ondoren, Bergwall-ek iritzia aldatu zuen. Poliziak eta terapeutek informazioa partekatzen zuten eta Bergwall-en bertsioa bideratzen zuten.

2.3. Marinus eta Janni Stegehuis (Appojaure, 1984)

Bikote holandar hau kanpaina denda baten barnean hilda aurkitu zuten, Suedia iparraldeko Appojaure lakuaren inguruan, 1984ko uztailaren 13an. Kasua ikertzeko egin zitzaizkion galdeketetan hilketaren bertsioa aldatzen joan zen Thomas Quick.

- Bertsio batean konplizea bazuen eta bestean ez; konplize moduan deskribatzen zuenak bazuen koartada.

- Bertsio batean kanpaina dendaren barnetik eraso zituen Quick-ek biktimak; beste bertsioan, kanpotik.
- Sturek zion bikoteko neskak (Janny) ile luzea eta beltzarana zuela, baina poliziak bazekien ile motxa zuela, eta zuritzen hasia.
- Sturek esan zuen bikoteko emakumea dendatik irteten saiatu zela, baina Janny Stegehuis bere zakuaren barruan zegoen.
- Aiztokada kopuruari, garraio moduari eta konplizeen parte-hartzeari buruz ez ziren bat etorri Quick-en bertsioa eta bertsio ofiziala.
- Sture ez zen gai izan hilketan erabili zen aizto motaren berri emateko.
- Sturek hasieran esan zuen gizonezkoaren bizikleta ostu zuela. Epaiaren arabera, emakumezkoaren bizikleta ostu zuen.
- Ez zen egia hildako emakumea gerritik gora biluzik zegoela.
- Hilketan antzeztean, bertsio ofizialak esaten zuenaren kontrako tokietan kokatu zituen Quickek kotxea eta denda; gizona eta emakumea alderantzizko lekuetan jarri zituen.
- Hilketan hura serieko hiltzaile baten logikatik kanpokoak ziren. Ordura arte mutikoen hiltzaile izan zenak hogeita hamar urtetik gorako bikote bat eraso zuen oraino.
- Pertsona susmagarri bat bazegoen hilketan horren ikerketan: droga mendekoa eta bortxazalea zen Johnny Farebrink. Kwastek esan zuen Quick eta Farebrink-en artean egindako erailketa izan zitekeela eta Thomas Quick-ek onartu zuen haren laguntzaz erail zituela Stegehuis-tarrak. Farebrink Suediako hiltzaile ezagunenetakoa zen, baina esaten zuen inoiz ez zela egon Thomas Quick-ekin; baina, hilketak gertatu baino bi aste lehenago espetxetik libre geratu zen. Hala ere, Farebrink-ek bazuen koartada bat, hilketak gertatu zen egunetan bere

emaztearekin ospitalean egon zelako, haren krisialdi psikotiko baten ondorioz. Koartada horren berri izan arren, Säter ospitalera eraman zuten Farebrink eta Quick-en aurrez aurre jarri zuten. Quickek ez zekien zer markatako kotxea zuen Farebrink-ek hilketaren garaian. Quick-ek Farebrink-i esan zion elkarrekin sauna batean egon zirela, eta Farebrinkek erantzun zion berak ez zukeela inoiz aukeratuko sauna batera joatea, saunan arnasarik hartu ezin zuelako. Quick-ek ez zekien ezer Farebrink-ek izter batean zuen errebolberraren tatuajeaz eta bizkarrean zuen aulki elektrikoaren tatuajeaz (Råstam, 2013).

Hilketaren agertokia berreraikitzeko Sven Ake Christianson-ek proposatutako galdeketa kognitiborako teknikak erabili zituzten. Krimenaren eszenan zeuden osagai guztiak, orduan bezalaxe jarri zituzten ikertzaileek, agertoki horretan gertaeraren oroitzapenak errazago berreskuratuko zituelakoan. Penttinen poliziak etengabe gogorarazten zizkion Quick-i elkarrizketetan emandako datuak.

Jan Olsson eta Ture Nässén ikertzaileek ez zuten hori begi onez ikusten, eszenatokia eraiki behar zuena hiltzailea bera zela pentsatzen baitzuten. Thure Nässén-ek, ikusitakoa ikusita, esan zuten berreraikuntza hori psikologoek gidatu zutela, ez zela izan Sturek bere kabuz egindako berreraikuntza bat.

Hilketaren lehen errepresentazioan Sturek ez zuen jokatu bikotearen benetako hiltzaileak edo hiltzaileek jokatu zuen/zuten moduan. Atsedendia bat hartu zuten eta bitarte horretan Stahle, Christianson eta Penttinen-ekin hitz egin zuen eta sendagai dosi ederra hartu zuen. Bigarren berreraikuntzan lehen bertsioko desbiderapenak zuzendu zituen eta gehiago egokitu zen poliziaren bertsio ofizialera (Råstam, 2013; Josefsson, 2015).

Birgitta Stahle terapeuta, Kwast fiskala, Christianson psikologoa eta polizia agenteen artean egindako lau hilabeteko ikerketaren ondoren, Kwast seguru agertu zen: Quick erruduna zen. Penttinen eta Christianson-en aholkuari jarraituz, Bergwall-ek Claes Borgström hartu zuen abokatutzat. Borgström psikologiaren arloan prestatua zen eta ezagutzen zituen Laing-en teoria antipsikiatrikoak. Kwast eta Borgström-ek Gällivare-ko distrituko auzitegiari proposatu zioten har zezala Christianson aditu moduan, Marinus eta Janni Stegehuis-en kasua argitzeko, eta halaxe egin zuen. 1996ko urtarrilaren 9an hasi zen epaiketa. Epaiketa horretako irudi

nagusia Christianson izan zen. Christianson-ek memoriaren bi mekanismo oposatuen teoria aurkeztu zuen. Lehen mekanismoaren arabera, egoera mehatxatzaileak identifikatu eta ezagutzen ditu memoriak. Bigarren mekanismoaren arabera, desatseginak diren gertaerak ahanzten ditu. Haren iritziz, Sturek gertaera traumatikoak ezin zituen gogoratu, baina haren iraganeko esperientzien berri ematen digute hark egindako hilketek, hark bizi izandako gertaera traumatikoen berreraikitze eta errepresentazio baitira hilketa horiek. Christianson-en iritziz, ez zegoen ebidentziarik Sturek aitorten faltsuak egin zituela adierazten zuenik. Christianson-ek Margiten teoriak bereganatu zituen (Råstam, 2013; Josefsson, 2015).

Appojaureko hilketa berreraikitzean, Ellington izeneko identitatea hartu zuen Sturek. Psikiatra batek esaten zuen eskizofreniaren antzeko zerbait zuela Sturek, ongi funtzionatzen zuen azaleko geruza baten azpian; psikosia edo nortasun anizkoitzaren nahastea eduki zezakeela. 1985 eta 1995 artean asko ugaritu ziren nortasun anizkoitzen kasuak, batez ere EEBBetan. Normalean terapeutek berek induzitutako nortasun anizkoitzen kasuak ziren. Aipatzekoa da Sybil-en kasua. Nortasun anizkoitza garatu zutenek haurtzaroan eskuarki abusu sexualak jasan zituztela pentsatzen zuten, baina gero konturatu ziren nahaste hori zuten pertsonak berreskuratzen zituzten oroitzapenak faltsuak zirela; hots, terapeutaren laguntzaz eta indukzioz berreskuratu zituztela oroitzapen horiek. Sturek bi nortasun disoziatu garatzen zituen eskuarki: Ellington (aitaren irudia) eta Nana (amaren irudia), baina egun batean Birgitta Stahlek nortasun anizkoitzei buruzko artikulu bat erakutsi zion; artikulu horretan Truddi Chase emakume amerikarraren nortasun anizkoitzaz hitz egiten zen: laurogeita hamabi nortasun ezberdin garatu zituen. Handik laster, Sturek hirugarren identitatea, Cliff-ena garatu zuen (Råstam, 2013).

Marinus eta Janni Stegehuis-en hilketagatik Quick zigortzen zuen sententzia 1996an eman zuten epailariek, inolako ebidentzia forentserik gabe. Sturek zioenez, hilketa hori Ellington izeneko nortasun disoziatuak aginduta egin zuen.

2.4. Yenon Levi (Rörshyttan, 1988)

Israeldik etorritako 24 urteko turista, trekking egiten ari zela erail zuten Dalarna-ko Konderrian. 1988ko maiatzaren 3an joan zen Levi Suediara eta ekainaren 11n aurkitu zuten haren gorputza

Dalarnako eskualdean, Rörshyttan-eko baso bide batean, Säter-dik hogeitun bat kilometrora. Gorputzaren ondoan hesola odoleztatu bat zegoen, baina horren berririk ez zuen eman telebistako programak. Yenon Levi Estokolmoko Geltoki Zentralean ikusi zuten azkeneko, ekainaren 5ean. Hilketaren berri TV3-ko Efterlyst (Wanted) programaren bidez jaso zuen Sturek, 1995eko maiatzaren 17an (Råstam, 2013). Hilketaren hori berak egina zela esan zion Sturek Christianson-i, urte horretako uztailean.

Abuztuaren 19an gauetz deitu zion Quick-ek Penttinen poliziarari eta esan zion konplize baten laguntzaz hil zuela Levi. Konplize hori Upsalan hartu zuela eta Garpenberg-era joan zirela autoan. Han Leviri heldu ziola eta konplizeak erail zuela, autoaren maletategitik ateratako objektu astun baten kolpez. Han utzi zutela gorputza. Expressen egunkariari ere esan zion konplize baten laguntzaz erail zuela Levi. Gero bertsioa aldatu eta esan zuen berak bakarrik hil zuela, harri batez jota. Quickek egindako hilketaren deskribapena ez zetorren bat poliziararen ikerketako datuekin; hurbilago zegoen telebistako Wanted programaren bertsioetik (Råstam, 2013).

Quick-ek bertsio kontraerriak eman zituen:

- Batzuetan konplizeak aipatzen zituen eta beste batzuetan ez.

- Batzuetan toki batzuk aipatzen zituen, eta besteetan beste toki batzuk. Bertsio batean esaten zuen Levi lehen aldiz Upsalako tren geltokiaren inguruan aurkitu zuela; baina, lekukoak zeuden esaten zutenak Levi Estokolmoko Geltoki Zentralean ikusi zutela, desagertu baino lehen. Ikerketak ez zuen inola ere lotzen Upsalarekin. Bost hilabetez lehen bertsioari eutsi ondoren, kontaketa aldatu egin zuen eta esan zuen Estokolmoko Geltoki Zentralean hartu zuela Levi.

- Hilketarako erabilitako balizko tresna ere aldatu egiten zuen: harri kolpez, kotxeko katuaren kolpez, palanka batez edo hesola batez.

- Hilketaren unea ere aldatu egin zuen: batean esaten zuen hilda gero sartu zuela kotxean; bestean, hil aurretik sartu zuela.

- Quickek esan zuen bere eskua jertsearen azpitik pasatu zuela Leviren sabelean eta bularrean eta haren ilea sentitu zuela. Baina, Levik ilerik ez zuen bularrean eta sabelean (Råstam, 2013; Josefsson, 2015).

- 1988an hilketaren gunean kristal lodiko betaurreko batzuk aurkitu zituzten eta Penttinenek betaurreko horietaz galdetu zion Quick-i, baina hark ez zekien ezer. Galdeketetako batean esan zuen gasolindegian erosi zituztela betaurrekoak, Patrik izeneko konplizea mozorrotzeko asmoz. Baina, gauza harrigarria da ikusmeneko inolako arazorik ez duen batek lau dioptria baino gehiagoko kristaldun betaurrekoak erostea mozorrotzeko. 1991ko urtarrilean Zientzia Forentseen Laborategi Nazionalak esan zuen hilketaren gunean aurkitu ziren betaurrekoak pasaporte baten argazkian agertzen zirenak berak zirela. Hoya-Potikslip konpainia optikoak esan zuen pasaporteko betaurrekoek +4 dioptria zituztela. Ben Ali-rena zen pasaporte hori. Beb Ali eraso bortitzengatik espetxean egondako ipar afrikar bat zen, Estokolmoko Geltoki Zentralean salerosketarako eta lapurretarako arabiarrek kontratatzen zituena. Ben Alik kontratatutako marokoar bat, egun pare batez kanpoan egon ondoren, Yenon Leviri falta zitzaiona bezalakoxe jakarekin agertu zen. Yenon Levi azkenekoz bizirik ikusi zuten lekua Estokolmoko Geltoni Zentrala zen. Arabiarra hitz egiten zuten pertsonekin egon zen geltokian Yenon Levi. Levik arabiera hitz egiten zuen, baina judua zen eta Israelgo armadako sarjentu izana zen. Ben Alik gorroto zituen juduak. Beraz, Ben Ali susmagarria zen Yenon Leviren hiltzaile moduan (Råstam, 2013).

- Christina Ekström mediku ikerleak Quick-ek galdeketetan emandako informazioaren kontrako ebidentzia forentseen berri eman zuen; Quick-ek emandako bertsioen artean kontraesanak zeudela zioen: pelbisaren eskuin aldean bazuen Levik haustura bat, Quick-en deklarazioetan argitu ez zena.

Kontraesan horiek guztiak nabarmenak izan arren, Kwast-ek ez zuen pentsatzen Quick-en bertsio aldaketek haren aitorpenei sinesgarritasunik kentzen zienik. Batzuetan denbora asko egin behar izaten zuten gertakizunen bertsio zatikatuak eta kontrajarriak bateratzeko: terapia luzeak, poliziaren galdeketak, berreraikitze errepikatuak. Paul Johansson detektibe superintendenteak Yenon Leviren hilketari buruzko ikerketa-txostena irakurri ondoren esan zuen Quick-ek ez zekiela tutik ere Yenon Leviren hilketari buruz. Johansson-en ondorengo

superintendentea Jan Olsson izan zen. Olsson harrituta zegoen Quicken kontrako ekintza judizial bat has zitekeelako, hilketa egin zuena aske zegoen artean. Olsson inspektore buru erretiratuak Råstam-i esandakoaren arabera, hasieratik saiatu ziren Penttinen, Kwast, Christianson, Stahle eta kideak Quick-en bertsioa indartuko zuten frogen bila eta ez zieten jaramonik egin bertsio horren kontra zihoazen gertaerei. Olsson-ek Kwasti esan zion gehiegi eragiten zuela aditu teknikoen lanean. Kwast-ek debekatu egin zien Lennart Jarlheim eta Willy Hammar ikerketa arduradunei Quick-en ustezko konplizearen neska-lagunari galderak egitea. Fiskal bera arduratu zen Quick-en kasu guztiak aztertzeaz eta galdekatzaile berberak egin zizkion galdeketa guztiak. Fiskalaren eta defentsa abokatuaren artean ez zen egon inolako aurkakotasun eta lehiarik: abokatu defendatzaileak, Borgström-ek, ez zituen zalantzan jarri Quick-en kontrako frogak (Råstam, 2013).

Hedemorako tribunalak onartu zuen ez zegoela frogarik Quick hilketarekin zuzenki erlazionatzeko. Baina, hilketaren bertsioa kontsistentea zenez, eta inkoherentziarik ez zegoenez, Quick-ek erail zuela zirudien. Penttinen polizia ikertzailearen eta epaimahaiaren arabera, kontraesan garrantzizkorik ez zegoen Quick-en bertsioan. Horrela, ebidentzia forentserik gabe, Bergwall aho-batez errudun jotzen zuen sententzia eman zuen epaimahaiak 1997ko maiatzaren 28an (Råstam, 2013).

2.5. Therese Johannesen (Drammen, Norway, 1988)

Therese 1988ko uztailaren 3an desagertu zen, 9 urte zituela, Norvegiako Drammen hirian. Ehun polizia baino gehiago jardun ziren lanean haren bila eta milaka pertsona ikertu zituzten, baina emaitzarik ez zuten lortu. Thereseren hilketaren berri Norvegiako kazetari batek eman zion Stureri, Verdens Gang egunkarian ateratako idatzi baten bidez. 1996an aitortu zuen Bergwall-ek Therese erail zuela.

- Quick-ek zion 16 urteko Patrik Olofsson-ek eta berak erail zutela Therese. Patrikek bortxatu egin omen zuen Therese. Hala eta guztiz ere, Patrik ez zuten atxilotu, Johny Farebrink (Appojaureko konplizea), Messaure-ko Rune Nilson eta beste ustezko konplize batzuk atxilotu ez zituzten bezalaxe. Psychological Profiling Group-eko Ulf Asgard-ek ez zuen ezagutzen

hainbeste konplize eduki zuen serieko hiltzailerik.

- Bergwall-ek esan zuen Therese ile horia eta begi urdina zela, baina Therese beltzarana zen eta gaztaina koloreko begiak zituen.
- Therese hiri batean bizi zen, eta ez herri txiki batean, Bergwall-ek zion moduan.
- Bergwall-ek zion egun eguzkitsu batean gertatu zela hilketa, baina egun euritsua zen krimenaren eguna.
- Quickek ez zituen gogoratzen Thereseren xehetasunak eta Fjell eskualdekoak ere ez.
- 1996ko apirilaren 25ean Thereseren hilketaren berreraikuntza egitera irten ziren Säterdik Thomas Quick, Christianson memorian aditua, Birgitta Stahle psikoterapeuta, Kwast fiskala, Claes Borgström abokatuak, polizia eta Quicken sendagaiez arduratzen ziren ospitaleko erizainak. Berreraikuntza horretan Quick-ek esan zuen gogoratzen zuela Theresek orbain bat zuela eskuineko besoan. Thereseren amak zion jaiotzetiko marka bat zuela alabak masailean, baina ez zuen aipatzen besoan orbainik zuenik. 1996ko irailaren 9ko galdeketerako polizia norvegiarrak Penttinen-i esan zion Theresek ekzema zeukala bere besoan barnealdean. Penttinen-ek ekzema horri buruzko galdeketa gidatua egin zion Quick-i, baina, hala ere, hark ez zuen bertsio zuzenik eman. Alabaina, froga konbentzigarritzat hartu zuten hori epaiketan (Råstam, 2013).

Christianson izan zen 1997ko udan hilketaren berreraikitzea zuzendu zuen gidari intelektuala. 1998ko maiatzeko epaiketan Sturek egindako hutsegiteen arrazoia agertu zuen Christiansonek: gertaera traumatikoak eskuarki ongi antolatuak egoten badira ere pertsonaren memorian, mekanismo babesleek hilketaren eszenako oroitzapenak ezabatu egiten dituzte inkontzienteki. Hilketen eduki sinbolikoa azpimarratzen zuen Christiansonek. Säter-eko ospitaleko adituen ikuspegiaren arabera, Thereseren hilketa gertaera traumatikoa izan zen eta haren oroitzapena memoriatik ezabatua edo rreprimetua izan zen. Bergwall urtetan ez zen esperientzia horretaz gogoratu. Terapia saioetan berreskuratu zuen gertaeraren memoria (Råstam, 2013).

Thereseren gorpuzkinak aurkitzeko espedizio bat antolatu zuten Orje Forest-era; han elkartu ziren Quick, abokatua, fiskala, polizia galdekatzailea, memorian aditua, psikoterapeuta, erizainak eta Suediako nahiz Norvegiako poliziak. Chistiansonek hilketaren eszenatokia aztertzeko gidalerro batzuk eman zizkien eta Bergwalli narkotikoak mugarik gabe emateko aholkatu zuen (Råstam, 2013).

Sture erabat drogatuta eraman zuten eta norabide jakirik gabe, lehenik toki batera eta gero bestera, ibili zen gorpuzkinen bila. Horretan zebiltzala, Ellington izeneko nortasuna, nortasun disoziatua, atera zuen Bergwallek. Quick-ek esan zuen Ringan lakura bota zituela Thereseren gorpuzkinak. Zazpi astetan hondakinen bila jardun arren, eta dena ongi miatu arren, ez zuten ezer aurkitu. Gero pentsatu zuen gorpuzkinak legar-gune bateko zulotxo eta su-toki batzuetan egon zitezkeela eta han hezur hondakinak izan zitezkeen material puska kaxkar batzuk aurkitu zituzten. Per Holck irakasle norvegiarrak eta Richard Helmer alemaniarrak material horiek aztertu zituzten eta esan zuten gizaki gazte baten hezur puskek zirela probableki. Borgdtróm abokatuak esan zuen Thomas Quick-i esker aurkitu zirela hezur puska horiek. Penttinen eta Stigson-en iritzian ere, hezur puska horien aurkikuntza oso garrantzitsua zen.

Quick-ek esan zuen laku inguru hartan gorpu-zati txikiak zabaldu zituela. Toki horietako lurra eraman zen Estokolmoko Historia Naturalaren Museora; han Arkeologia Forentseko Lan Taldeko Rita Larje osteologoak aztertu zituen eramandako lurra eta hondakinak eta ez zuen hezur bat bera ere aurkitu. Hogei gune aztertu zituzten eta aurkitutako hezur bakarrak behi baten saihets hezurak izan ziren. Gainera, Larjek esaten zuen Holck eta Helmer-ek ez zituztela identifikatu hezur puskek. Ez zuten esan hezur puska handiena gorputzeko zein hezurri zegokion. Holck eta Helmer-en ondorioak ez zeuden literatura zientifikoan oinarrituta. Larjeren iritziz, oso zalantzazkoa zen hezur zati horiek pertsonarenak zirela esatea. Beste osteologo batengana joan nahi zuen hezur puska horiek aztertzeraz, baina Kwast-ek eragotzi egin zuen osteologo independente batek azterketa egitea, Thereseren ama azterketa berri bat egitearen aldekoa izan arren (Råstam, 2013).

Azkenean, ikerlari independente baten esku utzi zuten hondakin horien azterketa; analisi zientifikoak egin ostean esan zuten ez zirela hezurak, baizik egur puskek eta material sintetikoak. Zientzia Forentsearen Laborategi Nazionalak esan zuen hondakin horiek ez zirela

gizakiarenak. 2010eko apirilaren 8ko The Local egunkariak idatzi zuen serieko hiltzailearen biktimaren gorpuzkin gisara aurkeztu ziren ustezko hezurrak egurra eta kola besterik ez zirela. Ylva Svenfeldt ikerlari independentea erretako hezur hondakinetan espezialista zen eta gogor kritikatu zuen Holck eta Helmer-ek egindako ikerketa; harentzat garbi zegoen haiek ez zirela hezur hondakinak; iruzur zientifikoa izan zela esan zuen Aftonbladet egunkarian.

Sendagaiei esker gogoratu zen Quick Thereseren gorpuzkinak ez zituela lakuan bota, baizik zulo txiki batzuetan gorde zituela. Baina, gordeleku horiek ere ez zituen aurkitu. Ez zegoen lekukorik eta ebidentzia forentserik, Quick-en erruduntasuna demostratuko zuenik. Ez zen gai izan gorpuzkinak non gorde zituen agertzeko. Dan Josefsson-ek esaten duen moduan, Quick-en taldea eskolatu izan ez balute, memoriaren errepresioak nola funtzionatzen duen esateko, denek esango zuketena Quick gezurretan ari zela. Christianson-en memoriaren errepresioaren teoriari esker, Quick hiltzailea zen, biktimak nolakoak ziren ez bazekien ere, non erail zituen ez bazekien ere eta hondakinak non gorde zituen ez bazekien ere.

Kwast fiskalak hiltzaile izateaz akusatu zuen Quick: esan zuen Quick-ek xehetasun oso garrantzitsuak eman zituela, Thereseren hilketarekin erlazionatzen zutenak. Bogström-ek, Quick-en abokatuak ere esan zuen zalantzarik ez zegoela frogaren aurrean. Kwasten iritziz, Thereseren hilketari buruz poliziak bakarrik jakin zituzkeen datuak eman zituen Sturek. Baina, ez zuten kontuan hartu Quick-ek harremana izan zuela Svein Arne Haavik izeneko kazetari norvegiarrarekin 1995eko udan, hark gutun bat idatzi ziolako. Haavik-ek lan egiten zuen kazetak, Verdens Gang-ek, Quicki buruzko artikulu batzuk argitaratu zituen eta Haavikek artikulu horiek eman zizkion Quicki. Artikulu horietako datuak erabili zituen Sturek poliziari egindako aitorpenetan, eta esan zuen hilketari buruzko inolako informaziorik ez zuela irakurri (Råstam, 2013).

Ebidentzia forentserik gabe, 1998an eman zuen epaimahaiak Quick kondenatzen zuen sententzia. Christianson-ek dena justifikatzen zuen, esanez gertaera traumatikoak ondo gordetzen direla memorian, baina egon daitezkeela memoria horiek erreprimitzen dituzten mekanismo babesleak. Esaten zuen hiltzaileak bere traumei buruzko historia egiten duela hilketen bidez (Råstam, 2013).

Råstam kazetaria Norvegiara joan zen eta han Thomas Bjerknes polizia irakasleak utzitako hiru bideo ikusi zituen. Bideo horietan garbi agertzen zen Sture drogatuta eraman zutela errekonozimendu saiora. Råstam Säter-ko ospitalera Sture ikustera joan zen 2008ko irailaren 17an; hari gogorarazi zion, Xanax drogaren dosi handi bat hartuta joan zela Norvegiako hilketaren errekonozimendu saiora. Stureri zalantza sortu zitzaion, egia izan ote zitekeen berak hilketarik ez zuela egin. Råstam-ek esan zion hilketa horien egilea ez bazen, aukera ezin hobea zuela atzera egiteko. Sturek esan zion ospitaleko jendeak uste zuela bera zela hiltzailea eta ospitaleko sendagileek nahi adina droga ematen zioten garaietan berak Säter-ko ospitaleari ongi zetozkion aitortpenak egin zituela. Ospitaleko medikuek droga emateari utzi ziotenean, berak aitortpenak egiteari utzi zion. Terapeutekin eta poliziarekin harremanak izateari utzi zion (Råstam, 2013).

2.6. Trine Jensen (Oslo, 1981) eta Gry Storvik (Oslo, 1985)

Jensen eta Storvik-en kasuak batera epaitu zituzten, biak Sturek eginak zirela pentsatzen baitzuten. 2000ko ekainaren 22an bi neska horiek hiltzeagatik kondenatu zuten Sture.

1981eko abuztuan 17 urteko Trine Jensen-ek bere ama bisitatu zuen Osloko erdiguneko denda batean. Arratsaldean lagun batekin elkartzeko gelditua zen, baina desagertu egin zen. Oslotik 15 bat kilometrora aurkitu zuten, bortxatua eta eraila. Therese Johannessen-en hilketa berreraikitza Norvegiara joan zenean izan zuen Sturek Trine Jensen-en hilketaren berri, Dagbladet kazetaren bidez. 1996ko urrian Penttinenen aurrean aitortu zuen berak hil zuela Trine. 2000. urtean eman zuen epaimahaiak Bergwall kondenatzen zuen sententzia, ebidentzia forentserik gabe.

24 urteko neska heroinazale eta prostituta zen Gry Storvik. 1985eko ekainaren 24 edo 25ean desagertu zen Oslon eta hurrengo egunean hilik agertu zen auto-aparkaleku batean. Kazetari norvegiar batek eman zion Stureri hilketaren berri. Sturek kazetariari esan zion berak erail zuela Gry Storvik: 23 urte zituela Norvegiar harekin sexua izan eta erail egin zuela. Bergwall homosexuala zen eta biktimari aurkitu zitzaion semena ez zen harena. Ebidentzia forentserik gabe kondenatu zuten Thomas, hilketa bere gain hartu ostean. Penttinen poliziak ez zion jaramonik egiten Sturek esaten eta egiten zuenari, aurre-iritzien arabera gidatzen baitzen.

Sturek 1999ko urrian esan zuen aitzokadaz erail zuela Storvik eta Penttinenek bazekien Storvik-en hiltzaileak ez zuela aitzorik erabili. Baina, Penttinen Säter-ko ereduaren teoriaz baliatzen zen gertaerak interpretatzeko. Sturek zenbat eta hutsegite gehiago egin elkarrizketetan, zenbat eta kontraesan gehiago agertu, orduan eta ziurrago zegoen Penttinen gertaera lazgarriak gordetzen zituela Bergwallek; bertsio ofizialarekiko Sturek agertzen zituen kontraesanak babes mekanismotzat hartzen zituen Penttinen-ek eta bertsioa zuzentzea eta bertsio koherente bat ematea denbora kontua zela pentsatzen zuen. Penttinenen iritziz, hilketei buruzko galdeketetan eta elkarrizketetan Sturek esandakoek garrantzi gutxiago zuten haren arnasketa erritmoak, aurpegi adierazpenek, tonu aldaketek, isilaldiek edo keinuek baino; beraz, Penttinen poliziak gehiago begiratzen zion Stureren gorputz adierazpenari hark esandakoari baino.

Berak bere kabuz egindako aitortpenetan oinarrituta kondenatu zuten Thomas, inolako ebidentzia zientifiko-teknikorik, frogarik eta testigantzarik gabe. Bergwall inplikaturik zuten lekukorik eta armarik ez zen aurkitu. Hasieran Thomas ez zen hilketa kasu horietan gertatuaz oroitzen, baina memoria berreskuratzeko egindako terapia saioen ondoren, benzodiazepinen laguntzaz egindako terapia saioen ondoren, memoria "berreskuratu" zuen eta poliziaren txostenetan erregistratu zuen. Poliziaren bertsiora hurbiltzeko, liburutegietako informazioa eta galdeketetan terapeutek eta poliziek egindako iradokizunak, sugestioak eta adierazpenak erabiltzen zituen.

Liburutegietan aurkitzen zuen argitu gabeko hilketen informazioa eta haietatik ateratzen zituen hilketak deskribatzeko erabiltzen zituen datuak eta xehetasunak. Esate baterako, Estokolmoko Errege Liburutegiko mikrofilmeetatik. Psikiatrikoko profesionalen, abokatuen eta poliziaren igurikapenetan eta gorputz espresioan oinarrituta asmatzen zuen Thomasek bere deklarazioetan esan behar zuena. Terapeutek, kasuaren jarraipen zorrotza egin ordez, ad hoc arrazoibide bat jarraitu zuten: pentsatzen zuten, kasua deskribatzen hastean, Quick ez zela kasuaren xehetasunez oroitzen, memoria erreprimetua zuelako.

3. Sture Bergwall-ek bere gain hartu zituen beste hilketa batzuk

Thomas Blomgren-en hilketa 1964an gertatu zen, Bergwall-ek 14 urte bakarrik zituenean. Kasu hori argitu gabe egon zen hogeita hamar urte inguru. Estokolmoko liburutegitik atera zituen Bergwall-ek hilketa hori deskribatzeko datuak. 1993ko irailaren 22an joan zen Sture Estokolmoko Liburutegi Nazionalera eta han Thomas Blomgren-en hilketako datuak aztertu zituen. Blomgren eraso sexual bortitz baten ondorioz hil zen. Aitak azken aldikoz 1963an eraso zuen Sture. Horrek trauma bat eragin zuen harengana eta trauma horrek eraman zuen Blomgren-en hilketaren bidez aitaren eraso birbizitzera (Råstam, 2013).

Sturek gogoratu zuen 14 urte zituela hamalau urteko beste bat hil zuela. Zehaztasun handiz deskribatu zuen Sturek 29 urte lehenago egindako hilketa eta Penttinen poliziari iruditu zitzaion egia esaten ari zela. Hasierako aitorpenean emandako datuak aldatu egiten zituen Sturek aitorpenaren kontraesanak zuzentzeko. Behin baino gehiagotan pasatu zen liburutegitik, hilketaren xehetasunak begiratzera. Penttinen poliziak eta Kjell Persson-ek pentsatu zuten Sturek aurrerapen handia egin zuela bere terapian, galdutako oroitzapenak berreskuratu baitzituen. Margit eta Persson ere guztiz asebetarik zeuden, Säter-ko ereduak funtzionatzen zuela ikusita. Sture zela eta Persson-ek terapeuta trebetzat zeukan bere burua. Kwast ere pozik zegoen, psikiatregan jarri zuen konfiantzak funtzionatu zuelako. Kwastek prentsaren aurrean esan zuen frogatu zutela Sturek hil zuela Thomas Blomgren.

Christer Van de Kwast fiskalak esan zuen Thomas Blomgren-en hilketarekin lotua zegoela Bergwall. Lotura horren azalpenik ez zuen eman Kwast-ek, baina Bergwall-en abokatuak, Gunnar Lundgren, harekin ados agertu zen. Kwast-ek Stureren kontra hasi zuen kanpaina arrakastatsua izan zen, Blomgren-en hilketaren epaiketa hasi baino lehen egunkariak erruduntzat jo baitzuten Bergwall.

Blomgren-en kasua Thomas Quick tartean sartu baino lehen aztertu zuten polizia zaharrek garbi esaten zuten Sture ezin zitekeela izan haren hiltzailea. Harrigarria zen Kwast-ek polizia horiengana jo ez izana. Bazeuden lekukoak Blomgren berrogei bat urteko gizon batekin ikusi zutenak eta gizon hori identifikatu zutenak.

Gerora jakin zen hilketa gertatu zen aste bukaeran (1964k maiatzaren 6an) Pentekoste Elizan sendotza sakramentua hartu zuela Thomasek, hilketa gertatu zen tokitik sei ordu et erdiko distantziara. Hainbat lekukok ikusi zuten bere arreba bikiarekin batera komunioa hartzen, hilketa gertatu zen lekutik horrenbeste kilometrotara. Gainera, gertaera horretako argazki bat ere bazegoen. Sturek esan zuen hilketa Albestan edo Ljungn-en gertatu zela, baina Växjön-n gertatu zen. Nola joan zen Falun inguruko Korsnäs-etik Växjö-ra, batetik bestera bostehun kilometro eta gehiago baldin badago? Sturek hasieran esaten zuen Sisten Eliasson-ekin joan zela, haren autoan; gero ez zion galdera horri erantzun nahi izaten. Hamalau urterekin, autorik eta gida baimenik gabe, oraindik erosi gabeko autoan (hilketarako erabili zuten autoa oraindik erosi gabe zeukan haren txoferrak hilketa gertatu zen urtean), hilketa gunetik kilometro askotara zegoen eta sendotza hartu zuen asteburu horretan (Råstam, 2013).

Beraz, Kwast fiskalak gezurra esan zuen kasua argitua zegoela esan zuenean. Garbi dagoena da psikoterapeutak, poliziak eta fiskalak elkar hartuta lan egin zutela. Ados zeuden Kwast, Penttinen, Göran Fransson, Kjell Persson eta Margit Norell (Josefsson, 2015; Råstam, 2013).

Beste hainbat aitortpenen artean, Thomasek aitortu zuen bi errefuxiatu afrikar erail izana ere, baina bizirik eta ongi aurkitu zituzten gerora bi pertsona horiek. Thomasek bere gain hartutako hilketen kasu bakar batean ere ez zegoen ebidentzia enpirikotik, egilea bera zela esateko. Milaka lagun elkarrizketatu zituzten kasu horien inguruko datuak jasotzeko, baina Thomas akusatuko zuen lekukorik ez zen agertu.

4. Zerk eraman zuen Sture Bergwall aitorten horiek egitera?

Sture konturatu zen Perssonek bere txikitako traumen berri jakin nahi zuela eta ez zen paziente interesgarria sentitzen, horrelako traumen oroitzapenik ez zuelako. Sture desiratzen zegoen Margit Norellen seilua zeraman terapia hasteko, hots, objektu-erlazioen teoriar oinarritutako psikoterapia hasteko. Ordurako ezagutzen zituen Alice Miller-en teoriak, gurasoen abusuari buruzkoak, Säter-ko liburutegian nahiko liburu baitzeuden ildo horretakoak.

1992an Stureri alta ematea pentsatzen ari zirenean, hark Therese erizainari esan zion ekintza larri baten errudun izan zitekeela. Ekintza larriaren pistatzat bi letra eman zituen: M-U. Kjell Persson eta Göran Fransson-en arduraren pean zegoen Sture. Terapiaz arduratzen zen Persson eta arduradun orokorra zen Fransson. Fransson-ek izan zuenean Sturek esandakoaren berri, hari deitu zion eta M-U letrek zer esan nahi zuten galdetu zion. Sturek ez zion erantzun. Orduan Fransson-ek esan zion ezin zitekeela ospitaletik irten, argibide gehiago eman artean. Hamar egunez ospitaletik irten gabe eduki ostean, irteteko baimena eman zioten.

Perssonekin egiten zituen terapia saioetan (asteko bi saio) haurtzaroko gertaera ahantziak berreskuratzen hasi zen Sture. Haurtzaroko oroitzapenetan zentratu ziren terapeutak, eta jaramon handirik ez zioten egin Sturek drogekiko zuen mendekotasunari. Baina, Sturek, zenbat eta oroitzapen lazarriagoen berri eman, orduan eta droga gehiago lortzen zuen. Gainera, irteteko baimena ematen zioten: egunean hiru ordu. Elizara joateko edo ariketa fisikoa egiteko irteten uzten zioten. 1991ko abenduan lagun batekin ihes egin zuen, suizidatzeko asmoaren berri ematen zuen oharra utzita. Hurrengo egunean itzuli ziren, anfetaminak kontsumitu zituztela esanez. Ordurako hasia zegoen bere haurtzaroko gertaera traumatikoak oroitzen: hiru urte zituela aitak beraz abusatatu egin zuela; amak aurpegi bikoitza zuela, lau urte zituenean izoztutako laku batean utzi zuela, eta beste batean tranbia baten bidean utzi zuela (Råstam, 2013).

Terapia saioetan Bergwallek esan zuen berak egindako hilketa baten (Johan Asplund-ena) oroitzapenak berreskuratzen ari zela. Aitortza hori egitean, barne-herstura handia agertu zuen. Kjell Persson ari zen Stureri psikoterapia egiten eta isilean zeramaten Johan Asplund-en

hilketari buruzko ikerketa. Persson-ek Säter utzi zuenean, Birgitta Stahle arduratu zen Thomas Quick-en terapiaz eta berehala jakinarazi zioten Göran Franssoni Quick hilketa baten erantzule izan zitekeela. Franssonek Quick behartu zuen aitorten hori poliziaren aurrean egitera. Jörgen Persson ofizialak egin zion Thomas Quicki lehen galdeketa, 1993ko martxoaren 1ean. Galdeketa horretan aitortu zuen beste mutil bat ere erail zuela: Thomas Blomgren (Råstam, 2013).

Sture Bergwall-ek izen berria hartu zuen 1992ko uztailean: Thomas Quick. Bazirudien Säter-ko terapia ereduaren bidez, eta Margiten laguntzari esker, hainbeste urtetan argitu gabe zeuden hilketa kasuak argituko zirela.

Sture bera ez zegoen oso ziur egin zituen aitorpenez. Berak batzuetan irudimenezko ikuspen edo fantasiatzat jotzen zituen hilketei buruzko aitorten horiek, baina, hala ere, Fransson-ek eta Margitek pentsatzen zuten Sture egia esaten ari zela, alegia, benetako hiltzailea zela. Horrela, ospitalean drogak kontsumitzen jarraitzeagatik hilketak asmatzen hasi zen Sture eta, ia konturatu gabe, bere ipuinen sarean gero eta harrapatuago geratu zen. Ipuin edo asmakizun horietatik aldentzen hasten zenean, Säter-ko terapeuta eta arduradunak bere kontakizunera itzularazten zuten. Hala ere, Bergwall-ek pentsatzen zuen poliziak ez zituela asmakizun horiek sinetsiko, terapeutek sinesten zituzten moduan (Råstam, 2013; Josefsson, 2015).

5. Margit Norell, Christianson eta Quick taldea

Thomas Quick-ek bere gain hartu zituen hilketen kasuetan talde berak eta taldekide berberak egin zituzten ikerketa gehienak. Epaiketa guztietan fiskal berak aurkeztu zituen Bergwallen kasuak. Thomas-en aitortzak izan ziren ebidentzia-iturri bakarra. Ez zen hilketen froga fisikorik, forentserik edo lekukorik agertu. Pentsamendu kritikoari lekurik ez zitzaion utzi. Quickek bere informazio guztia komunikabideetatik eta epaiketaren aurreko erregistroetatik atera zuen; haietan aurkitzen zuen hilketei buruzko informazio xehetua. Thomas Quick aztertu zuten psikologoaren agerian ikus zitekeenez, terapia saioei esker berreskuratu zituen Thomasek haurtzaroko oroitzapenak. Saio horietan eraiki zuen bere burua serieko hiltzaile moduan.

Persson kriminologo eta idazlearen arabera, onartezina da galdeketa guztiak poliziaren kide berberak egin izana. Ikerketan eta instrukzioan hainbat hutsegite egin ziren. Jan Olsson inspektore buruaren iritzian, Sture gezurretan ari zen. 1997ko urtarrilaren 31n Olssonek gezurrezkoak ziren bereizgarrien zerrenda egin eta Kwast fiskalari bidali zion, baina harengandik errieta jaso besterik ez zuen egin. Jan Olsson inspektorea Ulf Asgard psikiatrarekin elkarlanean jardun zen Laser Man-en perfil psikologikoa egiten.

Säter-en unitate psikiatriko berri bat ireki zuten, Margiten eredu terapeutikoa pazienteei aplikatzeko; psikoterapia jasotzen ari ziren pazienteak babesteko eta besarkatzeko bereziki egina zen. 1991an Sture Bergwall Säter-era eraman zutenean, Göran Källberg zen zuzendari medikua. Göran Fransson doktorea ere hango unitate psikiatriko berrian zegoen. Norell-en gainbegiradaren pean lan egiten zuten Källberg-ek eta Birgitta Stahle-k. Fransson-ek garai hartan pentsatzen zuen memoria erreprimitei buruzko Margiten teoria zuzena zela; eta horrela pentsatzen jarraitu zuen, 1995ean Elizabeth Loftusen "The Reality of Repressed Memories" irakurri zuen artean. Fransson-ek esaten zuen urte horietan guztietan giro sektario batean bizi izan zirela eta zaila zela Säter-en lan egitea, Margiten teorien jarraitzaile izan gabe. Teoria horien arabera, pazientearen portaera erasokorrak desagertu egiten ziren haurtzaroko oroitzapen erreprimituak berreskuratuz gero. Kjell Persson-en esku utzi zuten Bergwall-en tratamendua; ez zegoen psikoterapian prestatua eta gaitua, baina haren lana Margitek gainbegiratzen zuen (Josefsson, 2015). Astero behin baino gehiagotan elkartzten zen Persson

Sturerekin terapia saioak egiteko eta etengabe joaten zen Margitengana, Estokolmora, hark bere terapia saioak gainbegira zituen. Sturek sarritan izaten zituen barne-hersturazko dardarak, izu-ikarak, hiperbentilazioak, toteltasuna, bere burua zauritzea, negar hysterikoa; baina ez zen borroketan sartzen. Paziente kolaboratzailea zen eta tratu onez eta drogez eskertzen zioten. Jenny Küttim kazetariaren iritziz, Quick-en inguruan zebiltzan profesionalek harengan oinarritu zuten beren ibilbide profesionala. Bestalde, kalte handia egin zuen Quick-ek bere aitorenekin, hilketa horiek egin zituztenek libre jarraitu baitzuten. Baina, Sture motibazio bikoitza izan zuen jokatu zuen moduan jokatzeko. Alde batetik, nahi beste benzodiazepina lortzen zuen ospitaleko erizainengandik. Beste aldetik, bere auto-irudia elikatzen zuen: serieko hiltzailearen bereizgarri psikologikoak aztertzeak haien tratamendua erraztuko zuen; ordura arte ebatzi gabeko kasuak argituko ziren eta etorkizuneko hainbat hilketa eragotziko ziren. Pertsona ospetsu bihurtu zen Sture, baina, hala ere, krisialdiak izan zituen, pentsatzen baitzuen horrenbeste droga kontsumitzeak heriotzara eramango zuela. Han zegoen, ordea, bere inguruko taldea, Sture deklarazio gehiago egitera behartzeko (Josefsson, 2015).

Magnus Brolin psikologoak sekta batekin alderatu zuen Sturerekin inguruan lanean ari zen taldea. Sturek bazekien antzeztan ari zela eta besteak harekin sinesmenean loturik zeuden. Sture hasieran gai zen errealitatea eta fantasia bereizteko, baina gero, horrenbeste benzodiazepina kontsumituta, arazoak zituen errealitatea eta fantasia bereizteko. 1996ko azaroan, esaterako, drogen eraginaren pean, identitate anitz atera zituen, barne-herstura edo izu-ikara erasoak izan zituen eta suizidio entseguak egin zituen. Zenbaterainoko kontsumoa zuen jakiteko, adibide moduan, 1997ko urtarrilaren 28an hartutakoa kontatuko dugu. Barne-hersturaren eraso larriak eta karranpak izan zituen goizean; diazepam supositorioak eman zizkioten. Bazkalostean lo kuluxka bat egin eta barne-herstura nabarmena sentitu zuen; Xanax eman zioten. Zazpiak aldera sendagileak Heminevrin eman zion. Orduatakoa aldera arte lo egin zuen eta buruko minez jaiki zen; orduan, paracetamol eta voltaren eman zizkioten; ordubetera Xanax berriro. Goizean jaikitakoan, Xanax berriro ere (Råstam, 2013).

Thomasen bertsioek hutsune eta inkoherentzia asko zituzten, baina haren bertsioak bertsio ofizialarekin bat ez zetozenean, ikerketa taldeak pentsatzen zuen traumatizatua zegoela eta erruduntasunak ez ziola uzten gertaeraren xehetasunak berreskuratzen. Quick-en bertsioak aldatu egiten ziren, hilketaren ikerketan aurrera egin ahala. Asmatutako egiara hurbiltzen

joaten zen, poliki-poliki. Psikiatrikoko profesionalen eta poliziaren iradokizunetan oinarrituta bertsio ofizialera hurbiltzen zen. Aitortza horietan oinarrituta, beste ebidentziarik gabe, kondenatu zuten Thomas.

Quick-en taldean eragin handia izan zuten Margit Norell eta Christianson-ek:

Margit Norell 1914an jaio eta 2005ean hil zen. Sexualitateari buruzko hitzaldiak ematen ibili ondoren, psikoterapeuta autodidakta bihurtu zen; 1951n hasi zen psikoanalisia trebatzen. Norell-ek pentsatzen zuen psikoanalisiak ez zuela zientziaren sostenguaren beharrik. Haren iritziz, pertsona baten arazoak haren txikitako trauma erreprimituaren ondorio ziren eta oroitzapen horiek berreskuratuz gero, pazienteak sendatu egiten zen. Kontsulta pribatuan lan egin zuen; besteak beste, Säter ospitaleko terapeuten kanpoko aholkulari eta gainbegiratzailer moduan lan egin zuen. Bergwall-en psikoterapia gainbegiratu zuen Margitek hainbat urtetan. Bergwall-en psikoterapeutak ere berak izendatu zituen: lehenik, Kjell Persson eta gero Birgitta Stahle. Josefsson-en iritziz, Bergwall-en terapia Norell-ek zuzentzen zuen, ez Stahlek. Persson-ek eta Stahlek ez zuten egiaztagiririk psikoterapeuta moduan lan egiteko, eta Norell-ek zuzentzen zituen (Josefsson, 2015).

Norell-en prestakuntza freudiar ortodoxoa izan bazen ere, haren autore kuttunak beste batzuk ziren: Horney, Fromm, Frieda Fromm-Reichmann. 1960ko hamarkadan Suediako Elkarte Psikoanalitikoaren babesean lan egiten zuen Margitek, baina freudiar berrien korrontean kokatzen zuen bere praktika. Margitek talde bat osatu zuen, berak psikoanalizatu zituen pertsonen osatua, neurri handi batean; beraz, ezagutzen zituen haien arazo intimoak; freudiarra ez zen elkarte berri ezkutuko bat sortzea planteatu zien. Taldearen orientazio teorikoa Frieda Fromm-Reichmann-ek Psikoanalisi eta Psikoterapia liburuan planteatu zuena zen. Talde horretako kide zen Jan Stenson, psikologiako ikaslea, Margitekin psikoanalisi egin zuena eta amarekin zuen harremana Margitengana transferitu zuena. Margit trebea zen pazienteengan bereganako sentimendu indartsuak pizteko. Taldeko beste kide bat Monica von Sydow zen. Monikak familiako arazo handiak izan zituen; besteak beste, amak abandonatu egin zuen eta bizitza osoan izan zuen barne-herstura. Margiten babesera bildu zen eta harekiko mendekotasun emozional handia izan zuen.

Norell-ek pentsatzen zuen nahaste mentalak txikitako esperientzia traumatikoekin erlazionatuak daudela. Berak ere nahiko arazo izan zituen bere haurtzaroan; gurasoak munduan zehar ibili ziren (aita ikerlari zientifiko moduan eta ama kazetari moduan) eta haren hezkuntzaz ez ziren gehiegi arduratu. Margit familia onekoa bazen ere, ez zituen begiko goi klase-mailakoak eta langileen aldeko apustua egin zuen; Nietzsche, Kierkegaard, Marx eta antzeko autoreak irakurri zituen (Dan Josefsson, 2015).

1968an sortu zuen Margitek Psikoterapia eta Psikoanalisi Holistikoaren Institutua. Medikuntzan eta Psikologian prestatutako jendeari psikoterapia holistikoa irakasteko erakundea zen. Institutu hori laster bihurtu zen Elkarte Psikoanalitikoaren Nazioarteko Federazioaren kide. Azken elkarte hori Erich Fromm-en ekimenez sortua zen.

Margit Norell-ek ez zuen sekretu profesionalaren araua oso ongi betetzen. Taldekide bakoitzari sinestarazten zion pertsona berezia zela beretzat eta beste taldekideen ezkutuko kontuak kontatzen zizkion. Horrela, taldekide bakoitzak uste zuen berak besteen kontuak bazekizkiela, baina besteek ez zekitela bere konturik. Halako batean taldekideak hasi ziren elkarren artean komunikatzen eta konturatu ziren gauza bera egiten zuela kide guztiekin. Margitek uste zuen trebetasun handia zuela psikoanalista moduan kasu zailak konpontzeko, Frieda Fromm-Reichman-ek bezala. Pazientearen guraso on moduan jokatzeko uste zuen eta ordura arte psikoanalisiak sendaezintzat jotzen zituen mugako nahasteak ere tratatzen zituen. Bere taldekideei esaten zien goren mailako terapeutak zirela. Baina, taldeko terapeutek tratatzen zituzten paziente batzuk suizidatu egin ziren eta terapeutek Margitengana jo zuten babes bila, hark gainbegiratzeko baitzituen kasuak. Baina, Margiten esan zien gertatutako hutsegiteak terapeutaren ardurakoak zirela, behar zen moduan prestatuak ez zeudelako. Taldekideek ikusi zutenean Margitek ez zuela konfidentzialtasun araua betetzen eta gainbegiratzeko zituen kasuetan zegokion erantzukizuna ez zuela bere bizkar hartzen, haren kontra jartzen hasi ziren. 1970eko hamarkadan Erich Fromm-ekin harremana izan zuen Margitek eta hura bere terapeuta izatea nahi izan zuen. Bi udatan astebeteko bi saio egin zituen harekin, Suitzako Lukarnon, eta gehiagotan ere hori bera egin nahi izan zuen, baina Erich Fromm oso okupatua zegoen eta ezin izan zuten (Dan Josefsson, 2015).

1972 urterako Margitek gidatzen zuen taldea haren kontra jarria zegoen. Baina, Säter-eko gaixo eskizofreniko baten terapeuta moduan Barbro Sandin-ek egiten zuen lana gainbegiratzen zuen. Fromm-Reichmann-en bideari jarraitzen zion Margitek eta esaten zen gaixo eskizofrenikoak sendatzera ere heldu zela; baina, Josefsson-ek ez zuen aurkitu zientifikoki balioztatutako ikerketarik, gaixo eskizofrenikoak sendatu zituela esaten zuenik. Säter-en jarraitzen zen eredu mugimendu antipsikiatrikoaren barnean kokatzen zen; mugimendu horrek normalak baino osasuntsuago jotzen zituen eskizofrenikoak eta zalantzan jartzen zituen gizarteko konbentzio hipokritak. Margitek eskizofrenikoekin lantzen zuen terapian pazienteak aurrez zituen harremanei alternatiba bat eskaintzen zitzaien: giza harremanen esperientzia berri bat; harreman horiei esker, sakoneko elementu arriskutsu eta debekatuei aurre egin ziezaieketen (Dan Josefsson, 2015).

Margit-ek maitale bat izan zuen: Alanson White Institutuko kide zen David Schechter. 1972an ezagutu zuten elkar. David ere judua zen, Margit bezala. Elkarri beren arazoak kontatzen zizkioten. Margit-ek esaten zion terapiaren gainbegiratzailer moduan hobeto funtzionatzen zuela berak, terapeuta moduan baino. Esan zion, baita ere, 1977ko martxoaren amaieran emango zuela azken hitzaldia Institutu Holistikoan. Hitzaldi horretan Margitek esan zituenak eta Thomas Quick-en kasuko oharretan Birgita Stahlek esandakoak erabat ados zetozen. 1977an Margitek deskribatzen zuen terapia geroago Quick-en kasuan erabiliko zena bera zen: memoria berreskuratzearen terapia, egoera traumatikoak birbizitzearen terapia. 1979ko udazkenean New Yorkera joan zen Margit, Davidekin elkartzera, baina hura depresioak jota zegoen eta Margit itzuli egin zen. 1980an Erich Fromm hil zenean, David deseginda geratu zen, urte askotakoa izan baitzen Fromm-ekin egin zuen psikoanalisi. Davidek bere azken gutuna 1980ko uztailan idatzi zion Margiti. Eta bere buruaz beste egin zuen (Dan Josefsson, 2015).

David Schechter suizidatu ondoren, beste talde bat osatzen hasi zen Margit. Zazpi bat lagun ziren taldean. Taldekideetako bat Tomas Videgard psikologoa zen. Margitekin egin zuen terapia 13 urtez, astero bi aldiz elkartuta. Margitek erreserbarik gabeko sostengua ematen zion Tomasi; amaren funtzioa betetzen zuen eta Tomas emozionalki haren mendeko zen. Hedén-Chami unibertsitatean irakasten zuen Margareta zen beste taldekide bat. Harentzat ere ama moduko bat izan zen Margit. Haren iritziz, Margitek osatu zuen taldea sekta moduko bat zen, adierazpen askatasunik gabea. Talde horretan ezin zuten goraiatu Margitena ez zen eredurik. Azkenean, taldetik irten egin zen Margareta. Terapia saioetan pazienteak aitortutako guztia konfirmatzen

zuen Margitek: amaren edo aitaren lekua hartzen zuen. Aukera uzten zion pazienteari bere etxean geratu nahi bazuen gelditzeko. Sekta kutsua zuen Margiten taldeak; Margiten jarrerak eta jokaerak ezin ziren kritikatu; taldekide guztiek pentsamendu bera agertu behar zuten. Margitek baztertu egiten zituen bere metodoa zalantzan jartzen zutenak eta lausengatu egiten zituen adostasuna agertzen zutenak (Dan Josefsson, 2015).

Norell-en jarraitzailea zen Tulla Brattbakk-Göthberg psikoterapeutarekin hitz egin zuen Josefsson-ek eta hark Norell-en bereizgarri psikologiko baten berri eman zion: taldekide guztiek itsuki obeditzen zioten Norell-i eta norbaitek zalantzan jartzen bazuen hark esana, taldekideek eraso egiten zioten. Margit Norell-en alaba Annie-ren arabera, aurrez berarekin terapian egondako pertsonetik harremanak erabat moztu izan zituen bere amak. Giza eskubideen alde asko borrokatu zen, baina, inguruan jende asko zuenean ere oso bakartia zen eta ez zuen lagunik. Bere babesaren beharra zuen jendeaz eta bere teoria psikologikoak miresten zituen jendeaz inguratzen zen. Lana lehenesten zuen, familiaren aurretik. Ondorioz, Norell-en alaba Annie neskamearengandik hurbilago sentitzen zen, amarengandik baino (Josefsson, 2015).

Göran Källberg psikiatra 1981az geroztik Säter ospitaleko segurtasun unitatean zegoen. Norell-ekin harremanean jarri zen Källberg eta preso arriskutsuei haren terapia eredua aplikatzen hasi zen; Norellek bere taldeko kide izateko eskaintza egin zion. Källberg zuzendari medikua zen eta berea zen Sture Bergwall-en terapiaren ardurak nagusia; Birgitta Stahle psikologoa kontratatu zuen paziente arriskutsuen psikoterapia egiteko eta haren terapia lana Margitek gainbegiratzen zuen. Margitek Stahle ere gonbidatu zuen taldeko kide izateko. Horrela, Birgittak Säter-en aplikatzen zuen terapia Margiten teorian oinarritua zen: haurtzaroko abusuen memoria erreprimiteak sortzen ditu nahaste psikologikoak. Teoria horretan oinarrituta Svartenbrand izeneko gaizkilea tratatu zuen Källberg-ek eta komunikabideetan oso ospetsu bihurtu zen. Laster, ordea, gaizkileak espetxetik ihes egin zuen eta horrek zalantzan jarri zuen Norell-en eredua. Tomas Videgard, Margareta Hedén-Chami eta beste batzuk aldendu egin ziren Margitengandik, baina haren esanetara jarraitu zuten Birgitta Stahle, Cajsa Lindholm eta Gillan Liljeström-ek.

Liljeström 1978 urtean hasi zen Margitekin terapia egiten. Gero Margitek Liljeström-i pazienteak pasatu zizkion, psikoterapia egin ziezaien. Liljeström-en pazienteen kopuru handi batek iraganean jasandako trauma eta abusuen oroitzapenak aurkitu behar zituen. Liljeström eta Lindholm-ek Margiti lagundu behar zioten Thomas Quick-i buruzko liburua idazten, baina Margit poliziaren lanaren zain zegoen: Sturek hildako pertsonen hondakinak aurkitu zain zegoen, hari buruzko liburua amaitzeko. Chistianson-ek, Stahlek eta Penttinen-ek gorpuzkinak aurkitzea lortzen bazuten, liburuaren proiektuak aurrera jarraituko zuen.

Stureri egotzen zitzaizkion lehen hiketen gorpuak aurkituak zeuden. Horregatik, 1996an hasi ziren seriozki Quick-ek hildako pertsonen gorpuzkinen bila. Stahle eta Sturek kontakizun bat asmatu zuten, Sturek gordetako gorpuzkinei buruz, eta anaia Simonen hilketaren mitoarekin lotu zuten: Simonen gorputz zatiak elkartu eta Simon berreraiki behar zen. Gorpuzkinen gordelekuei buruzko kontakizun mitologikoa ere landu zuten Sturek eta Stahlek: Sturek etxebizitza aldatzen zuenean, hilakoen hondakinak ere aldatu egiten zituen, haietatik hurbil egoteko. Horrela, hainbat aldiz gorpuzkinak tokiz aldatu beharra gertatu zitzaion Stureri eta azken gordelekuan bildu zituen hilketaren guztien hondakinak (Dan Josefsson, 2015).

Bere paziente gehienak politiko erradikalak zirela esaten zion Margit-ek Erich Fromm-i 1970ean. Margiten arabera, haurtzaroko traumak ziren arazo mentalak eta kriminalitatea sortzen zituztenak. Hanna Olsson feminista Prostituzioko Komisioaren idazkaria zen eta Margitekin egin zuen psikoanalisi. Patricia Tudor-Sandahl psikologo, psikoterapeuta eta pedagogian doktorearen psikoterapia ere Margitek gainbegiratu zuen. Astean bitan elkartzen zen Margitekin eta urtetako psikoterapia egin zuen harekin. Margit saiatu zen Patriziak gogora zitzan aitak eragindako abusu sexualak. Izan ere, abusu sexualen oroitzapen erreprimituak berreskuratzeari buruzko Margiten obsesioa gero eta nabarmenagoa zen. Patriziari iruditzen zitzaion Margiten taldea oso mendekoa zela harekiko; taldeak miretsi egiten zuela Margit. Margiten mendetik irten zenean, hark taldearen ama balitz bezala jokatzeko zuela eta beste guztiek haren haurrak balira bezala jokatzeko zutela eta Margit emozionalki hotza zela esan zuen Patriziak (Dan Josefsson, 2015).

1980ko hamarkadaren amaieran Norell saiatu zen memoria berreskuratzeari buruzko lan bat argitaratzen, baina unibertsitateak ez zion onartu. Saiatu zen Contemporary Psychoanalysis

aldizkarian artikulu bat argitaratzen, baina baztertu egin zioten han ere (Dan Josefsson, 2015). Bergwall-ek ez zuen haurtzaroko gauza handirik oroitzen, psikoterapia hasi aurretik; terapian agertu ziren haren lehen oroitzapenak. Norell-ek zionez, Bergwall-ek ezingo zituen jasan haurtzaroko oroitzapenak psikoterapeuten laguntzarik izan ez balu. Ospitale psikiatrikoan terapia egiten zuen bitartean eta drogen mendean zegoen artean, nortasun disoziatu batzuk ere agertu zituen Sturek eta nortasun horien arabera erlazionatzen zen terapeutarekin edo poliziarekin (Dan Josefsson, 2015).

Persson-ek Säter utzi zuenean, hark lan egiten zuen ospitaletako batera eraman zuten Sture, baina agindu zioten Säter-era itzuli ahal izango zela, han gustura ez bazegoen. Stureri ez zitzaion gustatu ospitale hura, han ez baitzioten benzodiazepinik ematen; abstinentzia sintomak sentitzen hasi zen eta Säter-era itzultzea eskatu zuen. Itzultzean, besoak zabaldua hartu zuten. Zegokion benzodiazepina dosia eman zioten eta Birgitta Stahle izendatu zuten haren terapeuta; Margitek gainbegiratu zuen terapia. Lotura estua izan zuten Margitek eta Stahle-k. Stahle-ren esanetara lan egin zuten bi psikologoek: Magnus Brolin eta Lena Arvidsson-ek. Brolin-en terapeuta Hanna Olsson zen eta gainbegiratzaile, Cajsa Lindholm. Biak ziren Margiten jarraitzaile (Råstam, 2013; Josefsson, 2015).

Cajsa Lindholm-ek psikologia ikasi eta talde terapian entrenatu zen 1975erako eta Margiti eskatu zion haren paziente izan ote zitekeen. Margitek paziente asko zituen eta esan zion hiru urteko txanda zeukala aurretik. 1979an hasi zen Margitekin psikoterapia egiten: Margit zen terapeuta eta gainbegiratzaile. Cajsak Margiten eskutik egin zuen bere ibilbide profesionala; harengandik ikasi zuen haurtzaroko oroitzapen traumatiko erreprimatuen eta iraganerako erregresioaren teoria. Ametsen interpretazioan oinarritzen zuen bere terapia lana (Josefsson, 2015).

Lena Arvidsson 1991n hasi zen erizain laguntzaile moduan Säter-en lan egiten. 1993an eta 1994an Säter-en terapeuta moduan lan egin zuen udako hilabeteetan. Birgitta Stahle Margitekin gainbegiratze saioa egitera joaten zenean, Lena arduratzen zen Sture-ren terapiaz. Sture terapian egon zen denboran Säter-en egon zen Lena. Jeffrey Masson-en *The Assault of Truth* zen Lenaren liburu kutunetako bat; Freuden sedukzioaren teoriari buruzko liburua zen. Lena Arvidsson-ek Cajsa-rekin egin zuen terapia eta urteak behar izan zituen aitak eragin zizkion

abusuen kontzientzia edo memoria berreskuratzeke; Cajsaren laguntzaz haurtzaroko gertaerak bistaratu eta berriro oroimenera ekarri zituen, ametsen interpretazioetan, bistaratzeetan, erregresioetan eta terapeutarekin izandako elkarrizketetan oinarrituta. 2012an, Cajsarekin terapia hasi zuenetik 30 urte pasatuak zirenean, Lenak astero izaten zituen oraindik harekin gainbegiratze saioak.

Margitek bakardadeari beldur handia zion eta babes osoa emango zioten lagunen beharra zuen. 2005eko urtarrilaren 28an hil zen. Haren hiletan ziren bere lagun kutunak: Sven A Christianson, Gillan Liljeström, Birgitta Stahle, Lena Arvidsson, Stina, Cajs Lindholm.

Christianson-ek 1984an lortu zuen doktoregoa Umeå Unibertsitatean eta Estatu Batuetara joan zen memoria faltsuen espezialista zen Elizabeth Loftusekin lankidetzan aritzeko. Suediara itzultzean, Umeåko Unibertsitateko irakasle bihurtu zen. Terapian berreskuratutako oroitzapenen aurrean jarrera kritikoa hartu ordez, oroitzapen erreprimik berreskuratzeke poliziaren laguntzaile bihurtu zen eta Säter-era maiz joaten zen. Serieko hiltzaile baten gogamenari buruzko liburu bat idazteko ituna sinatu zuen Norstests argitaletxearekin.

Stureren kasua aztertzeke P. Fisher eta R. E. Geiselman-ek asmatutako elkarrizketa kognitiboa erabiltzea iradoki zion poliziari Christiansonek. Ez zuen kontuan eduki metodo hori ez zela egokia egia esan nahi ez zutenentzat. Gainera, elkarrizketa kognitiboan ez ziren erabili behar galdera gidatzaileak, baina Penttinen-ek galdera gidatzaileak egiten zituen. Sturek erantzun ofizial zuzena ematen zuenean, beste galderarik ez zion egiten; erantzun okerra ematen zuenean, beste modu batera galdetzen zion, harik eta erantzun ofizialera hurbiltzen zen arte. Hasierako erantzun okerrak ez zituen kontuan hartzen, gero erantzun zuzenak ematen bazituen (Josefsson, 2015).

1998ko ekainean Astrid Holgersson psikologoak Sven Ake Christianson akusatu zuen, sugestioa eta metodo manipulatzaileak erabili zituelako Quick aitorten horiek egitera bideratzeko. Christianson-ek esan zuen ez zegoela aztarnarik aitorten faltsu baten aurrean zeudela esateko. Holgersson-ek Quick Taldeaz hitz egin zuen. Talde horrek eraiki zuen Quick serieko hiltzaile moduan. Taldearen partaideak hauek ziren: Sven Ake Christianson, memorian aditua; Christer van der Kwast fiskala; Seppo Penttinen ikertzailea; Birgitta Stahle, Göran Fransson eta Kjell

Langbert terapeutak; Claes Borgström abokatu defendatzailea. Ikerketa, terapeuta eta polizia taldeak lagundu egiten zion Stureri hilketaren eszena eraikitzen (Josefsson, 2015).

Kazetarietarako sinestezinak eta ulertezinak gertatzen zitzaizkien Stureri egotzitako delituak, baina, Christianson-ek honela interpretatzen zituen: Quick lau urte bete aurretik bortxatua izan zen. Eraman ezinezko beldurra eragin zion horrek eta beldur hori beste norbaitengana transferitu behar zuen. Bizitza bat birrinduz, beste bizitza bat birsor zezakeen. Hala ere, heriotza bakoitzak sortzen zion sentipenak gutxi irauten zion eta hilketa errepikatu beharra zuen. Hilketak kontakizun batzuk ziren, gertaera traumatikoak islatzen zituztenak; iraganeko gertaerak adierazteko hizkuntza bihurtzen zen hilketa. Helduaroko ekintzak izugarriak izan baziren, haiekin erlazionatutako haurtzaroko gertaerek ere izugarriak izan behar zuten. Hiltzailearen ekintzak biziraupenerako estrategiak dira.

Christianson-ek sarritan hitz egin zuen Quick-ekin Säter-en. Serieko hiltzaile baten gogamenari buruzko liburu bat idazten ari zen. Quick-i Xanax (alprazolam) sendagaiaren dosi ugari emateko aholkatzen zuen, hilketen oroitzapena berreskuratzeak barne-herstura handia sortzen baitzuen. Sendagaiari esker denboran atzeranzko erregresioa egin zezakeen. Droga horien eraginez berreskuratu zituen honako gertaera hauek: lau urte zituela, eraso sexual oral eta analak jaso zituela aitarengandik; eraso horietako baten lekuko izan zela ama; ama haurdun zegoela, zazpi hilabeteko, eta horrek abortua probokatu ziola; amak abortuaren errua Stureri botatzen ziola. Simon izena jarri behar zioten haur horri, baina, memoria berreskuratzean, Sturek Nomis (Simon alderantziz) izena oroitu zuen, Nomis-ek errazago ihes egiten baitzion zentsurari Simonek baino; errazagoa zitzaion izen alderantzikatuaz oroitzea, benetakoaz oroitzea baino. Sturek oroitzen zuenez, aitak hartaz abusatzen jarraitu zuen, hura nerabezarora heldu bitartean. Esaten zuen 13 urterekin aita erail nahi izan zuela, baina adorerik ez zuela izan. Horrela, Sturek bere aitaren perbertsio sexualak bereganatu zituen eta 14 urterekin bere adineko mutil bat erail zuen Växjö-n. Hilketa horretan eta besteetan Quick aldi berean erasotzaile eta erasotua izan zen. Txikitan izandako erasoak berreraikitzen zituen hilketen bidez. Kazetek Stureren aitoren berri eman zutenean, haren anaiek ukatu egin zuten beren aitak abusu sexualik egin zuenik; asmakizun hutsak zirela esan zuten, baina epaiketetan ez zitzairen inolako jaramonik egin. Handik urte askotara, epaiketak berrikusten hasi zirenean egin zitzairen kasu (Josefsson, 2015; Råstam, 2013).

Stureren anai-arrebek haren asmakeriak entzun eta gero, harekiko loturak apurtu egin zituzten. Anaia zaharrenak, Sten-Ove-k, anaiari buruzko liburu bat idatzi zuen: Nire anaia Thomas Quick. Sturek esandakoak gezurtatu zituen, oroitzapen faltsuak zirela esanez. Örjan Bergwall-ek esan zuen haurtzaro segurua izan zutela beren etxean. Aita autoritario xamarra zela, baina aldarte onekoa eta umore zentzua zuena. Etxean ez zutela izan haserrealdi handirik. Ama egonkorra eta mendekoa zela eta familiaren etorkizunaz bakarrik arduratu zela. Sturek egindako ekintza okerren berri bazuen (Falun-go ospitaleko eraso) eta Säter eta Sidsjön-eko ospitaletan hura bisitatu izana gogoratzen zuen (Råstam, 2013).

Oroitzapen mingarriak ezabatzearen teoria Sven Ake Christianson-ena zen. Hiltzaileari kostatu egiten zaio oroitzapen mingarriak berreskuratzea; izan ere, mingarria da zoritxarreko gertaerak oroitzen egotea. Teoria horren arabera, Thomas Quick-ek bere bizitzako gertaera mingarriak ezabatu egiten zituen eta hilketak oso lausoki bakarrik oroitzen zituen. Oroitzapen erreprimituak berreskuratzeko ahalegina egin zuen terapian eta txikitan jasandako abusu sexualak kontatu zituen.

Christianson-en onartzen zuen aitorten faltsuak egin ditzakeela pazienteak errealitatea eta fantasia bereizten ez dituenean, komunikabideen arretaren bila dabilenean edo erruduntasuna sentitzen duenean, baina esaten zuen ez zela hori Quick-en kasua. Auzitegiari ez zitzaion beste biderik geratzen, aditutzat zeukan Christiansonen iritzia partekatzea baino. Christianson-en iritzia eragin handia izan zuen, adibidez, Zelmanovits-en epaietako auzitegiaren erabakian. 1997ko martxoak argitaratu zuen Oxford University Press-ek entsegu bilduma bat: *Recovered Memories and False Memories*. Bilduma horretan Sven-Ake Christianson eta Elisabeth Engelberg (1997) zioten hiltzaileak bere hilketen memoria erreprimi zezakeela, Zelmanovits-en epaietan egiaztatu zen moduan. Christianson eta Engelberg-en argitalpen horren atzean Säter-ko ereduaren eta Margit Norell-en ideiak zeuden. Prozedura tautologikoa erabili zuten: Zelmanovits-en epaiketa zientzian oinarritua zegoen, baina zientzia epaiketa hartan oinarritzen zen (Josefsson, 2015).

Christiansonek 2010ean *Inside the mind of a Serial Killer* argitaratu zuen; psikologo horrek eragin handia izan zuen Sture kondenatu zuten epaietetan. 1994an van der Kwast jarri zen

Christianson-ekin harremanean, Stureren kasuan aholkulari izan zedin. Garai horretan arazo pertsonal asko zituen Christianson-ek eta Birgitta Stahle-n bidez Margit Norell-ekin harremanean jarri zen. Hamar urte baino gehiagoko terapia egin zuen Margitekin, astero saio bat eginez. Lotura sentimental handia sortu zen Christiansonen eta Margiten artean; oso seguru sentitzen zen Margiten babesean eta amaren rola eman zion hari; baina, bien arteko harremana terapiatik harantzago ere hedatu zen eta Margiten teoriari sostengu teorikoa eman zien Christiansonek. Christiansonek asko miresten zituen Margiten sormena, informazioa sintetizatzeko gaitasuna, haren pentsamendu egituratua eta pazienteak ezagutzeko zuen gaitasuna. Margitek eragin handia zuen Sture Bergwall-en terapeutengan eta Christiansonengan, eta horien bidez, Bergwall-en terapian eta aitorpenetan eragin erabakigarria eduki zuen. Christianson-ek berrehun bat ordu pasatu zituen Sturerekin elkarrizketan, 1994tik 2002ra bitartean. Hark zioenez, memoria erreprimitei buruz ideia ezberdinak zituzten berak eta Margitek, zaila iruditzen baitzitzaion pertsona batek 3-4 urte zituen garaiko oroitzapen garbiak edukitzea; baina, hilketa narrazio moduan deskribatzen zuen Margiten teoriak oinarri zientifikoa zuela defendatu zuen Christianson-ek epaiketa garaian (Josefsson, 2015).

6. Memoria erreprimituaren teoria

Loftus eta Ketcham-en arabera (1994), terapeutak bultza dezake paziente bat-batean sortzen zaizkion oroitzapenak onartzera eta memoria faltsuak txerta ditzake pazientearen buruan. Freuden sedukzioaren teoriaren arabera, abusu sexualen oroitzapena erreprimitzeak sor ditzake nahaste mentalak, baina, laster, teoria hori albora utzi eta bulkaden teoria asmatu zuen jendeak ez zituen gertaera errealeko oroitzapenak erreprimitzen; onartezinak ziren bulkaden desirak erreprimitzen zituen.

Margit Norell-en teoriak Freud, Fromm-Reichmann, Erich Fromm, Alice Miller eta harreman objektalen teorikoengan oinarrituak zeuden. Hiltzaileen ekintzak haiek txikitari jasandako traumen birsortzeak ziren. Eskizofrenikoen portaerak ere haien txikitari traumen kontakizun inkontzienteak ziren. Ståhle-rekin egiten zuen terapian haurtzarora itzultzen zen Sture eta egin zituen hilketak haurtzaroko traumen berreraikuntza moduan interpretatzen zituen terapeutak. Gurasoek egindako erasoak berreraikitze mutikoak bahitu eta erailtzen zituen. Iraganeko traumak berreraikitze, sarritan nortasuna aldatzen zuen eta aitaren irudiaren oinordeko zen Ellingtonen identitatea hartzen zuen (Råstam, 2013).

Margit Norell-ek pentsatzen zuen arazoak zituzten pazienteek haurtzaroko abusu sexualak jasan zituztela, baina haien oroitzapena erreprimitu egin zutela. Iraganeko esperientziak erreprimitu egiten zituzten eta ezin zituzten oroitu. Esperientzia traumatikoen oroitzapena erreprimitu edo disoziatu egiten zuten. Traumak birsortzeari utziko zioten erreprimituriko oroitzapenak berreskuratzean. Gertaera traumatiko horiek kontzientziara ekartzeko hipnosia, bistaratzea eta antzeko teknikak erabili behar ziren (Josefsson, 2015).

Sturek guztiz bat egin zuen gertaera traumatikoen memoria erreprimituaren teoriarekin eta bizimodu oso erosoan Säter-en: gela handia, irteeretarako baimenak, benzodiazepinen dosi handiak, terapeuten tratamendu goxoa, bere kasuaz idazteko aukera.

Gertaera traumatikoen memoria erreprimitu egiten dela dioen teoriaren aurkako emaitzak lortu zituzten Willem Wagenaar eta Jop Groeneweg ikerleek 1990ean. Gertaera traumatikoen

oroitzapenak beste gertaerenak baino biziagoak zirela ikusi zuten. Elizabeth Loftus-ek 1993an egiaztatu zuen memoria faltsuak sor litezkeela. Horrela, Nick Spanos-ek eta kideek (Spanos, Menary, Gabora, Dubreuil eta Dewhirst, 1991) sexu-abusuen memoria faltsuak sortzen zituen hipnosiaren bidez. Loftusek *The Myth of Repressed Memory* (1994) liburuan esaten zuen terapeutak eraman zezakeela pazienteak oroitzapen faltsuak errealtzat hartzera (Josefsson, 2015).

Stahle-k Sturerekin terapia bere gain hartu zuen eta Kwast eta Penttinen-ekin harreman estuan jarraitu zuen. Kwast eta Penttinen-ek ez zuten profesional onen modura jokatu Bergwall-en kasuan. Asplundarrek kexua jarri zuten Kwast eta Penttinen-en kontra, baina Göran Lamberz Justiziako Kantzilerrak esan zuen Kwastek eta Penttinenek lan ona egin zutela; Quick-i egozten zitzaizkion 8 hilketek bereizgarri bertsuak zituztela eta hiltzaile berberak eginak zirela; baina, hori ez zen horrela. Ezer garbi bazegoen, hilketen objektuen eta moduen heterogeneitatea zen: neskek eta mutilak; haurrak eta helduak; eraso sexualarekin eta eraso sexualik gabe; gorputz batzuk zatikatuta, beste batzuk ez; batzuk estrangulatuta, besteak kolpatuta, besteak zulatuta (Josefsson, 2015).

7. Sture Bergwall-ek bere nortasuna berreskuratzen du

30 hilketa baino gehiago aitortu zituen Sture-k eta sei epaimahaiak zortzi hilketa egiteagatik kondenatu zuten. 2001ean jaso zuen Bergwall-ek azken epaia eta geroztik ez zuen deklaraziorik egin; poliziarekin kolaboratzeari ere utzi egin zion. 2001etik 2008ra bitartean jende askok ontzat ematen zituen Bergwallek jasotako kondenak; aldiz, batzuek pentsatzen zuten Bergwall mitomano bat zela.

2008an Thomasekin harremanean jarri zen Råstam kazetaria gutun bidez eta elkarrekin bilera bat egitea proposatu zion. Thomasek onartu egin zuen eta Råstam esku utzi zituen esku artean zituen agiriak: gutunak, azterketa mediku forentseak, sendagaien erregistroak, hilketen berreraikitzeen bideoak, egunkariak, poliziaren galdeketen transkribapenak, hilketaren eszenaren deskribapenak. Råstam Säter-ko ospitale psikiatrikora joan zen Bergwall bisitatzera. Thomas Quick izena alboratu zuen eta lehengo izena erabiltzen hasi zen berriro ere. (Råstam, 2013).

Råstam-ek bi dokumental egin zituen Suediako telebistan: aitorpen faltsuei buruzkoa eta psikoterapia saioetan sortutako memoria faltsuei buruzkoa. Thomas Quicki buruzko dokumentazio guztia aztertu zuen; gau eta egun egin zuen lana material guztia aztertzeko. Erregistro eta bideo horien bidez jakin zuen zenbateraino drogatua egon zen Quick klinikan eta hilketen berreraikitze saioetan. Azterketa horren ondoren esan zuen ez zegoela inolako ebidentziarik Bergwall-en kontra, hark egindako aitorpenetatik haratago. Dokumental horietan Bergwall erretraktatu egin zen eta atzera egin zuen bere aitorpenetan. Esan zuen liburutegitik hartu zuela hilketei buruzko informazioa eta aitorpen horiek drogen eraginaren pean eta jendearen arreta erakarri nahirik egin zituela.

Bergwall-en aitorpenak sinetsi ez zituztenen artean zegoen kriminologiako irakasle ezaguna zen Persson; haren iritziz, gezurti konpultsiboa zen Quick. Dan Larsson eta Jan Guillou kazetariak ere Quick gezurti bat zela esan zuten. Hainbat legegizon eta psikologiako adituk ere zalantzan jartzen zituzten Quick-ek aitortutakoak. Dagens Nioeter egunkarian Sture Bergwall-i egindako elkarrizketan heroitzat hartzen zuten hura; haurtzaroko gertaera traumatikoen

ondorio moduan interpretatzen zituzten Stureren hilketak; baina, egunkari berak argitaratu zuen Anita Cederström psikologoari egindako elkarrizketa bat eta han ukatu egiten zen oroitzaen erreprimituak helduaroan bat-batean berrager zitezkeenik (Josefsson, 2015).

Nerabezaroaz geroztik disolbagarriekiko mendekotasuna zuen Sturek eta hilketen aitorenak benzodiazepinen eraginaren pean egin zituen, sendagaietarako sarrera nahiko libreba baitzuen. Zenbat eta sendagai gehiago eman, orduan eta aitoren gehiago egiten zituen. Sendagaiak aldatu zizkionean, aitorenak egiteari utzi zion. Kasu guztiak antzera eraiki zituzten: testigurik gabe, aztarnarik gabe, DNA frogarik gabe eta drogen eraginaren pean. Råstam-en espetxe psikiatrikoan Bergwall bisitatu zuenean, hark onartu zuen aurretik egindako aitoren guztiak faltsuak zirela. Benzodiazepinek eginkizun garrantzitsua jokatu zuten Thomasen aitorenak lortzerakoan; izan ere, triazolam, alprazolam eta diazepam sendagaiak (Sture hartzen zituenek) eldarnioak, depresioa, barne-herstura, insomnioa, nahasmena eta portaera suizida eragin zitzaizkien, albo efektu moduan. Säter-eko ereduaren barnean, terapia bidez memoria berreskuratzeak sortzen zituen sintoma horiek. Horrela, Göran Källberg psikiatrak benzodiazepinen dosi altuak kendu zizkionean, Thomasen aitorenak aldatu egin ziren.

Margite Norell-en taldearengandik eta hark ezarri nahi zuen eredutik oso gertu egona zen Källberg; berak eratu zuen Stureri terapia aplikatuko zion Säter-ko unitate modernoa; baina, 1994an Säterko ospitaleko zuzendari mediku izateari utzi eta Hedemorako klinika psikiatriko batera joan zen. Ordura arte Margitekin terapia egin zuen eta asko hurbildu zen harengana. Källberg Säter-en ordezkatu zuena Erich Kall izan zen, baina 2001ean Kall bere postutik kendu eta Källberg-i eskatu zioten zuzendari mediku moduan itzultzeko. Göran Källberg poliki-poliki aldendu egin zen Margitengandik, jarrera kritikoa hartu zuen Kwasti buruz eta iraganean izan zituen portaera batzuei buruzko autokritika egin zuen. Hala ere, ez zuen parte hartu nahi izan Säter-ko eredu terapeutikoaren kontra (Råstam, 2013). Källberg-en emazteak ere Säter-en lan egiten zuen eta Stureri sendagai gehiegi ematen ziotela pentsatzen zutenetakoa zen. Källberg-ek berehala ikusi zuen sendagai gehiegi eta gaizki konbinatuak ematen zizkionela, eta desintoxikazio programa baten barruan sartu zuen Sture; izan ere, susmoak zituen Quick-en aitoren bitxiak zerikusirik izan zezaketela hark benzodiazepinei zien atxikimenduarekin. Desintoxikazioa lortu zuenean, berriro ere Sture Bergwall izena erabiltzen hasi zen (Josefsson, 2015).

2001eko abuztuan Sturek esan zuen ez zuela hilketen ikerketan parte hartuko sendagaiak kentzen bazizkioten, baina hala ere kendu egin zizkioten. 2002an hasi zen Sture bere gorputza berriro sentitzen. Sendagaiak uztearekin batera desagertu egin ziren haren nahaste mentalak: sintoma psikotikoak, nortasun anizkoitzak; desagertu egin zen harengan Simonen ilusioa: Simon berriro bizitzara ekarriko zuela, jendea hilez. Stahle-rekin terapia egiteari utzi zion, baina Stahlek Margitekin harremanean jarraitu zuen, nahiz eta hark Stureren terapia gainbegiratu beharrik ez zuen (Josefsson, 2015).

Dan Josefsson-ek, Bergwall-ek eta Hannes-ek elkarren berri bazuten. Bergwall-ek Hannes-ekin hitz egin izan zuen Josefsson-i buruz. Josefsson osasun mentalaren arloan lan egina zen, kazetaritza ikasi aurretik eta Bergwall-ekin harremanean jarri aurretik (Josefsson, 2015; Råstam, 2013).

8. Hilketak berraztertzen

Thomas Quick-i hilketa horiengatik egin zitzaion lehen epaiketaren garaian kazetariak esan zuten Bergwall serieko hiltzaile sadiko, kanibal eta pedofilo bat zela eta oso gaixorik zegoela. Jaso zituen epaietako bakar bat ere ez zuen apelatu Bergwall-ek; kasuaren instrukzioan egon zitezkeen ahultasunak eta kontsistentzia gabeziak ez ziren berraztertu. Kondenen ondoren Bergwall-ek utzi egin zion krimen horietaz hitz egiteari.

2008ko abenduan Thomas Olsson-ek hartu zuen Quick-en defentsa. Thomas Olsson-ek Anna Daderman psikiatria forentseko ikertzaileari eskatu zion azter zezala Stureren osasun historia. Daderman-ek esan zuen Bergwall-ek substantzia adiktibo ugari eduki zituela bere eskuera eta memoria berreskuratzeko terapia jaso zuela. Memoria berreskuratzeko terapia horiek sugestioan oinarritzen ziren eta hainbat kasutan memoria faltsuak sortzera eramaten zituzten pazienteak, hots, memoria faltsuak inplantatzen zituzten pazienteengan.

Oroitzapenen inplantatzearen akusazioaren aurrean, defentsiban jarria zegoen Quick-en taldea. Stahle-k behin eta berriro esan zuen berak ez zuela erabili memoria berreskuratzeko terapiarik eta Säter-ko zuzendari medikuak (Susanne Nyberg-ek) ere gauza bera esaten zuen, baina Dadermanek ikusi zuen memoria berreskuratzeko terapia eta sendagaiak konbinatu zituztela Sture aitoren horietara eramateko. Benzodiazepinak erabili zituzten Sture tratatzeko: alprazola, funitrazepama, diazepama (Josefsson, 2015). Stahlek esan zuen terapiako idatzi guztiak ezabatu zituela 2002an, Sturek tratamendua eten zuenean.

2009an Råstam-ek egindako bisita horietako batean Bergwall-ek esan zion berak ez zuela hilketa horietako bat bera ere egin. Hilketak berraztertu ziren eta ikusi zen Kwast prokuradoreak eta Penttinen poliziak hilketen txostenak apaindu egin zituztela, ziren baino koherenteagoak ager zitezen. 2010etik 2013ra bitartean zortzi hilketetatik aske geratu zen. Sven-Erik Alhem legeetan adituaren arabera, Justiziaren azken aldiko hanka sartzerik handiena izan zen Thomas Quick-en kasua. Thomas Quick is Dead liburua argitaratu zuen Sture-k, bere anaiarekin batera, 2011 urtean. Hori guztia gertatuta gero ere, eta nahiz eta Kwast-en kontrako ebidentziarik egon ez, Kwast-ek esaten zuen epaiak zuzenak izan zirela kasu guztietan. Borgström abokatuak ere ez zuen atzera egin eta terapeutek ere lehengo iritziarekin jarraitu

zuten. Kwast fiskalaren eta Penttinen poliziaren arrakasta profesionalaren oinarrian Stureren kasua zegoen (Josefsson, 2015).

2013an Suediako Gobernuak ikertzaile bat izendatu zuen kasu horretan zerk huts egin zuen aztertzeko; Säterko ospitale psikiatrikoan egon zen artean lege aldetik eta osasun aldetik zer tratamendu izan zuen jakiteko. 2014ko martxoaren 19an, 64 urterekin, askatu zuten Bergwall Säter-dik, 23 urte han egin eta gero. Nahaste psikologikoarekin jarraitzen zuen arren, zainketa psikiatriko forentsea erregimen irekian egingo ziotela esan zuten

9. Lekukoen testigantzaren fidagarritasuna

Hilketetan pertsona batek duen erantzukizuna ebaluatzean, ebidentzia enpirikoak eta lekukoen testigantzak osagai garrantzitsuak dira. Froga indartsuak bildu behar dira norbait hiltzailatzat hartzeko. Pertsona baten kontrako froga sendoak ditugunean, ebidentzia sendoak ditugunean, informazio berriak ez dio ezer erasten erruduntasunaren ebaluazioari edo pertsona bat hiltzailatzat jotzeko probabilitateari. Horregatik, froga bat sendoa den jakiteko, ebaluatu behar duguna honako hau da: informazio gehiago lortzeak aldatuko ote lukeen pertsona bat kondenatzeko probabilitatea. Hilketeta batez norbait kondenatu behar denean, hilketeta-ekintza egin izanaren probabilitatea ehunetik ehunekora hurbildu beharko luke eta froga berriek ezin ahal izango lukete inolaz ere aldatu probabilitate hori. Pertsona bat ezin da kondenatu ebidentzia ahulekin. Lehen mailako froga eta bigarren mailakoak baditugu, lehen mailakoek ezarritako probabilitate altua ezin ahal izango lukete eraitsi bigarren mailakoek (Dahlman, Wahlberg eta Sarwar, 2015).

Adituen testigantza ezinbestekoa da hilketeta bat epaitzerakoan, baina adituak ez direnentzat zaila da adituek esandakoa ebaluatzea. Epaimahaiko kideek sarritan ez dute gaitasunik adituen arrazoibideak ulertzeko. Aditu batek kasu bat aztertzeke erabili duen metodologia buruz eta atera dituen ondorioei buruz jarrera kritikoa hartu behar dute epaimahaikoek. Thomasen kasuan, ez ziren egokiak izan adituen metodologia eta ondorioak, baina epaimahaikoek ez zuten haiekiko jarrera kritikorik hartu. Kasuaren ikerketa zehatza eragozten zuten hainbat aldagai ez zituzten kontrolatu. Ez zuten beste aditu batzuen txostenik eskatu.

Adituen testigantza onartzeko irizpide batzuk eduki behar dituzte epailariek. Adituaren sinesgarritasuna aztertu behar dute; zenbaterainoko sinesgarritasuna duen bere lekukotza ematen duen arloan. Goldman-ek (2001) esaten du adituen alborapenak ekiditeko neurri hauek hartu behar direla: aditu baten iritzia zalantzan jartzen duen beste aditu baten iritzia; meta-adituek adituaren trebetasunez duten iritzia; adituen interes eta alborapenak.

Alde batetik, aditu bat sinesgarria izango da gaitasun jakin batzuk baldin baditu eta kasuaren ikerketa objektiboa eragotziko duen motibaziorik ez baldin badu. Adituaren interes eta motibazioak aztertu egin behar dira. Adituak kasuarekin loturiko interes batzuk baldin baditu,

interes horiek nahikoa izan litezke aditu izateari utzi behar izateko. Thomasen hilketen kasuan, adituek interes profesional asko zituzten, kasuaren ikerketa objektiboa kutsatzen zutenak. Beraz, sinesgarritasunarekin zerikusia duten adituaren bereizgarri pertsonalak aztertu behar dira.

Beste aldetik, adituaren ezagutzak eta arrazoibidea aztertu behar dira eta hori ez da batere erraza, aditu ez den batentzat (Walton, 1997). Garrantzitsua da aditu baten azterketaren ondorioak beste adituek diotenarekin nola erlazionatzen diren aztertzea. Adituen testigantzak printzipio zientifikoetan oinarritu behar du. Garrantzitsua da, baita ere, adituaren arrazoibidearen barne indarra aztertzea: arrazoibideak duen kontsistentzia; dituen premisetatik zenbateraino eratortzen diren haren ondorioak. Adituak bere iritzia ematen duenean, iritzi horren azpiko suposatutak eta premisak ere agertu behar ditu. Azaldu behar du baita ere, komunitate zientifikoak zenbateraino sostengatzen dituen premisa eta suposatu horiek.

10. Talde-pentsamendua

Talde txiki eta kohesionatu bateko kideek ikuspegi bateratu bat onartzen dute eta arrazionala ez den erabaki bat hartzen dute, beste taldekideekin ados etortzeko bulkadak eramanda. Taldeko kideek ados daudela sentitu behar dute; ados ez egoteak barne-herstura sortzen die eta hura ezin eramana gertatzen zaie. Horregatik, nahiz eta taldekide bakoitzak, banaka hartuta, beste iritzi bat eduki, zalantzak eta adostasun gabeziak gorde egiten dituzte. Taldeko harmonia eta adostasuna jartzen dituzte pentsamendu arrazionalaren aurretik. Adostasunaren ilusioak eta adostasun gabezia konpontzeko barne-hersturak edo presak eramanda, ondorio suntsigarriak dituzten erabakiak har ditzakete, erabaki horien ondorio moral eta etikoei jaramonik egin gabe.

Irving Janisek (1972) talde pentsamenduaren bereizgarri hauek azpimarratu zituen:

- Ahobatekotasun ilusioa: taldekide guztiak ados direla eta berdina sentitzen dutela uste dute. Ez dute informazio alternatiborik bilatzen.
- Zalantzak planteatzen dituzten edo galderak egiten dituzten taldekideen gain presio zuzena eragiten dute, taldekide leial izateari utz ez diezaioten.
- Ideia alternatiboen eta informazio negatiboaren aurrean babestuko dituzten hesiak eraikitzen dituzte, zentsura zaintzailearen bidez.
- Barnean sortzen zaizkien beldurrak eta zalantzak gorde eta auto-zentsuratu egiten dituzte.
- Talde hauetako kideak baikorrak dira eta arriskuak hartzeko prest egoten dira, zaugarriak ez direla edo hutsezinak direla uste baitute.
- Taldearen eta haren erabakien moralitatean zalantzarik gabe sinesten dute eta horrek eramaten ditu beren ekintzen ondorioak kontuan ez hartzerara.

- Taldeko erabakiak arrazionalizatzeko joera dute eta ez dituzte beren usteak birkontsideratzen; egoeraren adierazleak ez dituzte kontuan hartzen.
- Taldez kanpoko aurkari garrantzitsuak estereotipatu eta etsai bihurtzen dituzte, haien ideiek kritikatu eta zalantzan jar baititzakete taldearen oinarriak.

Quick-en kasua zeramaten fiskal, polizia, terapeuta, aditu eta erizainen pentsaera, jarrera eta portaeren lagin izan daitezkeen gertaerak agertu ditugu, baina setakeria horren adibidetzat har dezakegu beste hau ere: 1995eko azaroaren 7an Christian Holmén kazetariak Thomas Quick-i esan zion Sten-Ove anaiaren (anaia zaharrenaren) gutun ireki bat argitaratuko zutela Expressen kazetan; gutun hori Thomas Quick-i zuzendua zegoela. Gutun horretan Ste-Ovek esaten zuen Quick bere anaia zela eta egindakoak eginda ere, hura maitatzen jarraitzen zuela. Christian Holmén-ekin hitz egin zuen Quick-ek eta erabaki zuten Sten-Oven Säter-era joango zela anaia Sture bisitatzera. Bisitaren berri izan zutenean, erabat aztoratu ziren Birgitta Stahle, Kwast, Penttinen eta Borgström, eta Quick-i esan zioten bisita hori ez egiteko eskatu behar zuela, bere borondatez. Horrelakorik ez zen gertatu eta Erik Kall mediku buruak hartu zuen bisita debekatzeko erabakia. Quick-ek geroago Råstam-i esan zion, bisita hura jaso izan balu berak ezingo zukeela jarraitu bere gezurrei eusten (Råstam, 2013).

11. Ondorioak

Sture Bergwall Suediako familia arrunt batean jaio zen eta nerabezaroaren hasieratik agertu zuen homosexualitaterako joera. Drogak kontsumitzen ere nerabezaroan hasi zen. Ikasteko gogorik ez zuen eta hainbat lanetan jardun zen. Gero eta drogen mendekotasun handiagoa zuenez, dirua lortzeko eraso larriagoak egin zituen eta 41 urterekin Säter-ko ospitalean sartu zuten. Ospitalean Margit Norell-en eredu terapeutikoa nagusitu zen eta eredu hori jarraitu zuen Thomas Quick-en inguru antolatu zen taldeak: Christianson, memorian adituak; Kwast fiskalak; Penttinen polizia ikertzaileak; Birgitta Stahle, Göran Fransson eta Kjell Langbert terapeutek; Claes Borgström abokatu defendatzaileak.

Margit Norell-en iritziz, pertsona baten arazoak haren txikitako trauma erreprimituen ondorio ziren eta traumak berriro ez bizitzeko erreprimituriko oroitzapenak berreskuratu behar ziren. Margitek beti eduki zuen talderen bat bere inguruan, berak psikoanalizatu zituen pertsonen eta jarraitzaile sutsuez osatua. Taldeko kideekin lotura estua finkatzen saiatzen zen, Frieda Fromm-Reichmann-en eredu teorikoaren babesean. Margiten taldeko kideek mendekotasun emozional handia zuten harekiko eta mendekotasun hori baliatuta, bere teoria eta eredu terapeutikoa finkatu zituen. Taldekide askoren terapeuta eta haien terapia lanaren gainbegiratzaile izan zen Margit.

Christianson Umeåko Unibertsitateko irakasle zen eta Elizabeth Loftusekin lankidetzan aritua zen, memoria faltsuei buruz. Terapian berreskuratutako oroitzapenen aurrean ez zuen jarrera kritikoa hartu eta oroitzapen erreprimituk berreskuratzeko poliziaren laguntzaile bihurtu zen. Margiten eredu terapeutikoaren zutabeetako bat izan zen. Stureren kasuan Fisher eta Geiselman-ek asmatutako elkarrizketa kognitiboa erabiltzea proposatu zuen. Baina, elkarrizketa kognitiboaren barnean galdera gidatzaileak txertatzen zituzten terapeutek eta poliziek eta modu horretara lortutako erantzunak eta aitortenak ontzat ematen zituzten, inolako ebidentzia enpirikorik ez bazuten ere.

Sturek egindako aitortenak sinestezinak iruditzen zitzaizkien hura ezagutzen zutenei eta kazetariei, baina Christianson-ek galbahe teoriko berezia zeukan aitorten horiek interpretatzeko: txikitari jasan zituen erasoek beldur izugarria sortu zioten Stureri eta beldur

hori beste norbaitengana transferitu beharra zuenez, bere biktimengana transferitu zuen: bizitza bat birrinduz, bere bizitza berreraikitzen zuen. Heriotza bakoitzak sortzen zion sentipenak gutxi irauten zuenez, hilketa errepikatu beharra zeukan. Horrela heldu zen Suediako serieko hiltzaile handiena izatera. Hilketak kontakizun moduan interpretatzen zituen: hilketek iraganeko gertaera traumatikoak islatzen zituzten; hiketen bidez, gertaera haiek adierazten ziren. Hiltzaileak egiten zituen ekintzak bere biziraupenerako estrategiak ziren.

Garai horretan arazo pertsonal asko zituen Christianson irakasleak eta Margit Norell-ekin harremanean jarri zen. Hamar urte baino gehiagoko terapia egin zuen Margitekin eta lotura sentimental handia sortu zen bien artean; oso seguru sentitzen zen Margiten babesean eta amaren rola eman zion hari; baina, bien arteko harremana terapiatik harantzago hedatu zen eta Margiten teoriei sostengu teorikoa eman zien Christiansonek.

Kwast izan zen Quick-en kasuak instruitu zituen fiskala. Izugarrizko boterea eskuratu zuen Kwastek. Bera izan zen Stureren kasuetan aholkulari izateko Christianson aukeratu zuena eta eragin handia izen zuen Quick kondenatu zuten epailariengan. Christiansonek 2010ean Quick-i buruzko liburu bat argitaratu zuen.

Izan ziren Bergwall-en aitorpenak sinetsi ez zituzten eta oroitzapen erreprimituiei buruzko Margiten teoriak ontzat hartu ez zituzten irakasle, kazetari, legegizon eta psikologoak ere. Sturek egindako aitorpenak eta hark kontsumitutako drogak erlazionatzen zituzten psikiatra, kazetari eta profesionalak ere baziren. Konturatu ziren Sturek aitorpenak egiteari utzi ziola, drogen kontsumoa mugatu ziotenetik. Ikusi zuten Quick-en hilketa kasu guztiak antzera eraiki zituztela: testigurik gabe, aztarnarik gabe, DNA frogarik gabe eta drogen eraginaren pean.

Sture Bergwall-en terapeuta eta zaintzaile batzuk Margiten esanera jardun ziren urte batzuetan, baina gero aldendu egin ziren harengandik eta autokritika egitera ere heldu ziren, Göran Källberg-en kasuan gertatu zen bezala. Källberg-ek ikusi zuen sendagai gehiegi eta gaizki konbinatuak ematen zizkiotela Stureri, eta desintoxikazio programa baten barruan sartu zuen. Quick-en kasuak aztertu zituzten epailariek ez zuten aztertu adituen sinesgarritasunaren alderdia. Ez zuten neurririk hartu lekukotza eman behar zuten adituen alborapenak ekiditeko. Ez zituzten eskatu eta ez zituzten kontuan hartu aditu baten iritzia zalantzan jartzen zuten

beste adituen iritziak. Ez zituzten kontuan hartu sinesgarritasunarekin zerikusia zuten adituen bereizgarri, interes eta alborapenak.

Talde pentsamenduaren kasu paradigmaticotzat har liteke Thomas Quick serieko hiltzaile moduan eraiki zuen kasua. Quick tadea txikia eta kohesionatua zen. Adostasunik ezak barne-herstura sortzen zien taldekideei; beraz, zalantzak eta adostasun gabeziak gorde egiten zituzten. Ideia alternatiboen eta informazio negatiboaren aurrean hesi babesleak eraikitzen zituzten. Barneko beldurrak eta zalantzak gorde eta auto-zentsuratu egin zituzten. Taldeko harmonia jartzen zuten pentsamendu arrazionalaren aurretik. Arrazionalak ez ziren erabakiak hartzen zituzten, taldeko kohesioak sortutako euforiak eta hutsezintasun sentimenduak eramanda. Adostasunaren ilusioak eta adostasun gabezia konpontzeko barne-hersturak edo presak eramanda, ondorio kaltegarriak zituzten erabakiak hartu zituzten. Talde pentsamenduak bultzatuta erabaki zuten Sture Bergwall zortzi hilketaren arduradun zela. Talde itxiaren babesetik irten zirenean, Quick taldeko kide izandako batzuek beren pentsamendurako askatasuna lortu zuten eta aldendu egin ziren Margiten eredutik.

Thomas Quick-en kasua serieko hiltzaile baten eraikuntza kasua izan zen. Eraikitze horretan zerikusi handia izan zuten Sture Bergwall-en inguruan lan egin zuten polizia, terapeuta, psikologo, psikiatra, fiskal, epailari eta aholkulariek. Eraikuntza prozesu horren ondorioz 1990eko hamarkadan 32 hilketa bere gain hartu zituen Thomas Quick-ek eta zortzi hilketen egile moduan kondenatu zuten.

Drogen eraginaren mendetik irten zenean, Råstam kazetariaren eta beste profesional batzuen laguntzari esker, Bergwall-ek ukatu egin zuen hilketa horiek egin izana. Haren kontrako inolako ebidentziarik eta testigantzarik ez zegoenez, 2014ko martxoaren 19an, 64 urte zituela, aske utzi zuten Bergwall, 23 urte Säter-en eman eta gero.

Liburuaren egileak

Mikel Haranburu Oiharbide Filosofia eta Hezkuntza zientzietan Doktore eta EHUko Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutuko (ILCLI) kide da. EHUko Psikologia Fakultateko irakasle izana da eta hainbat liburu eta artikulua argitaratuak ditu nortasunaz, osasunaz, piskopatologiaz, komunikazioaz eta bestez.

Nekane Balluerka Lasa Psikologian Doktorea eta EHUko Portaera Zientzien Metodologia alorrean Irakasle Katedraduna da. Hainbat liburu eta artikulua argitaratuak ditu ikerketa diseinuez eta datu analisiaz, aldagai psikologikoak ebaluatzeko tresnen eraikuntzaz eta egokitzapenez, esku-hartze programen diseinu, garapen eta ebaluazioaz eta bestez.

Arantxa Gorostiaga Manterola Psikologian Doktorea eta EHUko Portaera Zientzien Metodologia alorrean Irakasle Titularra da. Hainbat liburu eta artikulua argitaratuak ditu aldagai psikologikoak ebaluatzeko tresnen eraikuntzaz eta egokitzapenez, esku-hartze programen diseinu, garapen eta ebaluazioaz eta bestez.

Liburuaren gaia

Liburuxka honek bi galdera hauei erantzun nahi die:

- Zerk eraman zuen Sture Bergwall hogeita hamar hilketara baino gehiagoren egile zela aitortzera?
- Zerk eraman zituen Suediako hainbat psikologo, psikiatra, terapeuta, polizia, fiskal, ikerlari eta epailari Sture Bergwall-ek zortzi pertsona erail zituela erabakitzen, haren kontrako inolako ebidentzia enpirikorik eta testigantzarik gabe?

Erreferentzia bibliografikoak

- Christianson, Sven-Åke eta Engelberg Elisabeth (1997). In M. A. Conway. Recovered Memories and False Memories. Remembering and forgetting traumatic experiences: A matter of survival. Publisher: Oxford, U.K.: Oxford University Press.
- Dahlman, Christian, Lena, Wahlberg eta Farhan, Sarwar. (2015). Robust Trust in Expert Testimony. *Humana.Mente*, 28, 17-37. https://www.researchgate.net/publication/277667886_Robust_Trust_in_Expert_Testimony
- Goldman, A. I. (2001). Experts: Which Ones Should You Trust? *Philosophy and Phenomenological Research*. 63 (1), 85-110.
- Hill, Brian (Dir.), Bailiff, Katie (Prod.), Lavender, Sam and Miralis, Anna (Exec. Prod.), Chapman, Roger (Cinemat.), Arnold, Mags (Ed.). (2015). *The Confessions of Thomas Quick*. Documentary Film.
- Janis, I. L. (1972). *Victims of Groupthink*. Boston: Houghton Mifflin.
- Josefsson, Dan. (2015). *The Strange Case of Thomas Quick*. London: Portobello Books.
- Loftus, E.F. eta Ketcham, K. (1994). *The Myth of Repressed Memory*. New York: St. Martin's Press.
- Råstam, Hannes (2013). *Thomas Quick. The Making of a Serial Killer*. Edinburgh: Canongate Books Ltd.
- Spanos, N., Menary, E., Gabora, J., Dubreuil, S. eta Dewhirst, B. (1991). Secondary Identity Enactments During Hypnotic Past-Life Regressions: A Sociocognitive Perspective. *Journal of Personality and Social Psychology*, 61, 308-320.
- Wagenaar, Willem eta Groeneweg, Jop (1990). The Memory of Concentration Camp Survivors. *Applied Cognitive Psychology*, 4 (2): 77-87.
- Walton, D. N. (1997). *The Appeal to Expert Opinion. Arguments from Authority*. University Park, PA: Penn State Press.